

Herririk Herri |2|

Txosna Batzordeak sinadurak batzen dihardu txosnak Pinondon jartzeko



Berbaz |9|

Udan ume saharaiak etxean hartu dituzten hainbat lagun berbalagun

Kultura |11|

DuranWOP elkartasun jaialdi kulturala, irailaren 30ean eta urriaren 1ean

Izurtza eta Mañaria bide segurtasun eske trafiko zuzendaritzan

Durangaldea • Izurtza eta Mañaria zeharkatzen dituen BI-623 errepide-tik igarotzen diren ibilgailuen abiadura kontrolatzeko presazko neurriak hartzeko eskatu dute bi herrietako alkateek Barne Saileko trafiko zuzendaritzara bidalitako idatzian. Administrazioak gaiarekiko agertutako "pasibitatea" salatu dute.

3

Independienteen eserleku bi EAJrentzat Amankomunazgoan

Abadiño • Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoan Abadiñoako Independienteek maiatzeko hauteskundeetan eskuratutako bi eserlekuak EAJren esku utzi dituzte. Jose Luis Navarro alkate izendatzeko osoko bilkuran EAJ abstenitu izana akordio horren ondorio dela azaldu du Alk prentsa oharrean.

6

Motorzale euskaldun gazteak trebatzeko talde berria sortu dute

KIROLA • Aitor Martinez motor gidari abadiñarrak, Herri Torrontegi gidari ohiak eta beste hainbat eragilek Fly Group Racing Team taldea sortu dute. Motorzale euskaldunei mundu horretan sakontzeko aukera eskainiko die taldeak.

16



• Mañaria

Udalaren egoera ekonomikoa "txarra" dela azaldu du Bilduk

8

• Atxondo

Bi umegaz, Haurreskola ezingo dute ikasturte hasieran zabaldu

3

• Berriz

Euskara eskoletan izen-ematea

4

Baserritarren azoka indartu gura du udalak

> Ordenantza gaurkotzea eta nekazariak PERCO mahaian egotea erabaki dute

> Merkatuan birsaltzaileak alboratzea beharrezkoa dela diote baserritarrek

2



Durangaldeko hainbat nekazarik ipintzen du salmenta postua Durangoko merkatuan. Iban Gorriti

kirol errota **PREZIO BERRIAK!**

36 eurogatik fitnessa, aparkaleku pribatua eta edozein ekintzatan parte hartzeko aukera! APROBETXATU!

• Ordu-tegi zabala:
Asteleheneetik ostiralera 07:00etatik 23:00etara
Larunbat eta igandetan 07:00etatik 21:00etara

• Informazio gehiago:
09:00etatik 13:00etara / 17:00etatik 21:00etara
kirolerrota@jasokiroiak.com

- Fitness
- Sauna
- Cycling birtuala
- Aparkalekua
- Hainbat ekintza:
 - Power pump
 - Ars Corpore
 - Kick Power
 - Cycling
 - Kick Boxing
 - Integral Fit
- Bestelako ekintzak:
 - Wing Tsun
 - Dantzak
 - Wellness plana

spa orbea 943 03 00 15
(Eibarko Orbea kiroldegia)

Kirolerrotako bazkideek izango dituzte deskontuak

Hurrengo eraikuntza

DURANGO

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea • Tel.: 94 681 66 73
Iurreta • www.zarateyelexpe.com

Elorrion ere aukera onak

HERRIRIK HERRI >

DURANGO

Zapatuetako azoka indartzeko neurriak hartuko ditu udalak

PERCO mahaian azokako saltzaileek merkatari elkarten moduan parte hartzea onartu dute

Merkatuaren ordenantza eguneratzeko eta merkataritza bultzatzea helburu duen PERCO mahaian azokako saltzaileak egon daitezzen eskatzeko mozioa onartu du udalak azkeneko osoko bilkuran. Aho batez onartu dute Bilduk eta Aralarrek aurkeztutako mozioa.

Durango Udalak merkatuaren ordenantza gaurkotu gura du

Merkatu plazan jarduten duten nekazariak lehenago salatu izan dutenez, "zapatuko azokako araudia ez da betetzen". Baserritarren kexei erantzun guran, ordenantza aztertu eta nekazarien jarduna bultzatzea da mozioaren helburua. Ordenantza 1986tik dago martxan, eta, Aralarreko Dani Maeztuk azaldu duenez, "araudiaren arabera bertako produktuak saldu beharko lirateke, eta denetik saltzen da". Bilduko Urdaspal

Bolinagak zehaztu duenez, "saltoki handietan erositako produktuak saltzen dituzte batzuek". Saltoki horiek, gainera, hein batean, sektorean kalteak eragin dituztela gogoratu du Bolinagak.

Mozioan proposatzen dutena zapatuko azoka arautzen duen ordenantza eguneratzea da, eta araudi hori betetzeko baliabideak ematea; azokako ekoizle eta saltzaileak herriko merkataritza bultzatzeko PERCO mahaian sartzea eta PERCO n merkatu hori bultzatzeko ekintza plana sortzea.

Alderdi guztiek aldeko botoa eman diote mozioari. PSE-EEko Pilar Rios merkatu plazako postuetan salgai jartzen diren produktu motak arautu eta Durango baserritarrei lehenatasuna ematearen alde agertu da.

EAJ alderdiko Goiztidi Diaz zinegotziak, berriz, bere taldeak ekimena pozik hartu duela esan du. Gaineratu duenez, "hautakunde programan esaten genuen sustatu beharreko egitasmoa dela hau". ■ A. Ugalde



Nekazariak merkatua bultzatzeko premia nabarmendu zuten maiatzean egindako agerraldian.

Merkatua biziberritzeko baserritarren proposamenak

Maiatzean eskainitako prentsurrekoan baserritarrek Durango zapatu goizetako merkatua bultzatzeko beharra azpimarratu zuten. Izan ere, merkatu egunak "oihan txiki bat" izaten dira sarritan, Urdaspal Alberdi baserritarren arabera. Horregatik, merkatua biziberritzeko bidean, mahaian eta saltokien banake-

ta arautuari ematen diote lehenatasuna. Horregaz batera, 'birsaltzaileak' alboratzea ere beharrezkoa dela diote.

Etorkizunean merkatuak oihutara pizteko hainbat ekimen egin beharko lirateke, baserritarren ustez

Horrez gainera, egoera hobetzeko beste proposamen batzuk ere badituzte baserritarrek etorkizunera begira. Larunbat goizetan baserritar ekoizleek TAOrik ez ordaintzea, kasurako, karga eta deskarga guneetan "kaos apur bat" sortzen delako sarritan.

Era berean, herritarrei merkatura joateko ohiturak sortzeko ekimenak bultzatu beharko liratekeela uste dute; esaterako, Ordizian zein beste herri batzuetan egiten den antzera.



Iaz txosnagunea Pinondon kokatu zuten.

Txosnak Pinondon ipintzea eskatzeko sinadura bilketa

Txosnagunea Zumar kalean beharrean Pinondon ipintzeko eskatu diote udalari, eta "herritarren babesa jasotzeko" sinadurak bilduko dituzte

Txosnen kokapenak aurrez aurre jarri ditu Txosna Batzordea eta Durango Udalak. Txosnagunea Zumar kalean jartzeko baimena eman du udalak, baina Txosna Batzordea ez da kokapen horren aldekoa, eta Pinondo proposatu du

Jaiak "arriskuan" daudela azaldu dute, baina akordioa topatzeko gertu daudela

Zumar kalean jende gutxiagok parte hartzen duela eta oso aparte gelditzen dela diote

txosnak ezartzeko gune legez. Txosnen arduradunek azaldu dutenez, "akordioa lortzeko saiakera egin gura dugu, herritarren atxikimendua sinadura bidez jasoz". Gaineratu dutenez, udalaren azken erantzuna txosnagunea Zumar kalean kokatzeko erabakia izan da. Jaiak "arriskuan" daudela ohartarazi dute txosnen arduradunek. Hala ere, akordio berri bat topatzeko "zabalik" daudela adierazi dute.

Akordioa

Txosnak non egokitu erabakitze-ko udalagaz sinatutako errotazio sistemarako akordioa 2009an amaitu zen. Urte horretarako trenaren lurperatzea eginda egotea aurreikusten zuten, eta Ezkurdin lekua egongo zela txosnagunea

egokitzeko. "Udalak errotazio horregaz jarraitu gura du", salatu du Txosna Batzordeak prentsa ohar baten bitartez.

Txosnek Pinondo gune legez proposatzeko hainbat arrazoi mahaigaineratu dute. Txosnen komisiok adin guztietarako ekin-tzak antolatzen dituela azaldu dute, eta Zumar kalea, jende gutxiagok parte hartzeaz gainera, oso aparte geratzen dela herriko giroa aberasteko: "Elkarteondako diru-sarreak askoz txikiagoak dira parte-hartze murriztagoaren ondorioz". Elkarten urte osoko aktibitatea baldintzatuta gelditzen dela salatu dute. Txosnetako arduradunen berbetan, auzokideekiko kalteak urriagoak dira Pinondon, zarata eta zabor maila dagokienez. ■ J.G.



ELORRIO

Argiñetako indusketarako diru-laguntza zalantzan

Argiñetako nekropoliaren ikerketa arkeologikoa egin ahal izateko diru-laguntza bertan behera gelditu da, EAJk dioenez, "aurreko gobernu taldeak ez dituelako Aldundiak eskatutako dokumentu guztiak aurkeztu". Diru-laguntza, gehienez, 30.000 eurokoa da. Joseba Mujika alkateordeak adie-

Udalak ez dituela Aldundiak eskatutako dokumentu guztiak bidali dio EAJk

razi duenez, "Aldundiak eskatutakoa ez bidaltzean, eskaera baloratu ere ez dute egin". Niko Moreno alkate ohiak adierazi duenez, "eskatzekotan erantzukizun administratiboak eskatu beharko dituzte, ez politikoak". Proiektu honen bultzatzaile izan direla-eta, aurrera irtetzeko lehenengo interesatuak eurak dira, Morenoren berbetan.

Errekurtsoa jartzea aztertzen dabil udala, baina gaitza izango dela diote: "Posible da urtebetean gelditu eta datorren urteko laguntzagaz indusketek jarraitzea". ■ J.G.

DURANGALDEA

BI-623 errepidean ibilgailuen abiada moteltzeko neurriak eskatzen

Barne Saileko trafikoko zuzendaritzara bidali dute Mañariko eta Izurtzako udalek eskaria

Abuztuaren 11ko data eta Luis Jose Ballarin eta Endika Jaio alkateen sinadurak daramatzen idatzian eskatu dute "Izurtza eta Mañaria zeharkatzen dituen BI-623 errepidetik igarotzen diren ibilgailuen abiadura kontrolatzeko presazko neurriak hartzea".

Trafiko oso astuna jasaten duen errepidea dela herri biak zeharkatzen dituen diote: egunean 8.935 auto, eta horietatik %12 ibilgailu astunak, Durangal-

Administrazioak gaiarekiko orain arte agertu duen "pasibitatea" salatu dute, besteak beste, idatzian

deko Udaltalde 21en datuen arabera. Ibilgailuen gehiengoak abiadura mugak ez dituela betetzen, eta trafikoak 70dBA-ko zarata eragiten duela ere nabarmentzen dute, besteak beste, alkate biek sinatutako idatzian.

Administrazioak gai honekiko eta saihebidetaren eta biribilgune baten behararen eskariarekiko orain arte agertu duen "pasibitatea" salatu dute Mañariko eta Izurtzako udalek.

Iaz "herritar talde batek ipinitako radarren abisu kartelek ibilgailuen abiadura moteltzea" eragin zutela-eta, "eraginkorsuertatu arren kendu zituzten kartel haiek ipintzea eta trafiko moteltzeko beharrezko neurriak hartzea" eskatu dute. ■ I.E.



Egunean 8.935 ibilgailu igarotzen dira errepide honetatik.

San Agustingo jaiak, gaur hasita domekara arte

Arratsaldeko 18:00etan jasoko dute txopoa



Iazko moduan, aurten ere jaietan murgilduko dira auzotarrak.

Egun handia domekako bada ere, gaurko eta biharko ere ekitaldi piloak eratu dute Elorrioko San Agustin auzoan. Txopoa gaur altxatuko dute 18:00etan, eta ondoren trikitalarien txanda izango da, auzo-afariagaz jarraituz. Bihar goizean Artiabasora irteera egingo dute, eta 18:00etarako laguntza txakurren taldearen erakustaldia prestatu dute. Musika DJ Xaiborrek eta Txabolakumeak taldeak ipiniko dute, gauetz.

Domekan Luhartzen erromeriak itxiko du auzoko jaietako egitaraua

Domekan, 11:30eko mezaren ostean, dantzak eta bazkaria etorriko dira. Umeek ez dute asperzeko tarterik edukiko arratsaldean, eta Luhartzen erromeriak itxiko du egitaraua. ■ M.O.

ATXONDO

Haurreskola itxita egongo da ume kopuruagatik

Ume bi daude izena emanda, eta gutxienez hiru behar dira eskola zabalik mantentzeko

Urtean zehar aukera egon daiteke, baina irailan behintzat Atxondoko Haurreskolak ezingo ditu ateak zabaldu. Gutxienez hiru ume egon behar ziren matrikulatuta, eta bi egokera umeen kopurua ez da gutxienera heldu.

Rosa Elizburu Atxondoko alkateak azaldu duenez, "kur-

tsoan zehar irekitzeko aukera egongo da", ume gehiago matrikulatuz gero. Informazioa gura duenak Udaletxera jo dezake.

Orain arte hiru ume nahikoa izan dira Haurreskola martxan edukitzeko, baina araudi berriak haurreskola berriak zabaltzeko bost ume behar direla dio. Atxondoko zabalik egon denez, ez dakite Haurreskolen Partzuegoak araudi zaharra edo berria aplikatuko duen. Udalak hiru umeko kopuruaren alde jardungo duela azaldu du alkateak. ■ A.U.

Ume gehiago matrikulatuz gero, kurtsoan zehar zabaldu ahalko dute Haurreskola

katerin ardoak
iñaki uribe
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan
saltsan.com

momotx
taberna
plateruen plaza, 12 • 48200 durango
tel.: 94 681 10 06

Betikoak
flexografia
ofizinarako zigiluak
fotolitoak
Bixente kapanaga, 9 - 48215 IURRETA
Tel.: 94 620 22 41

CENTRAL FORESTAL
42 Urte Euskal Basoen Zerbitzura

Smurfit Kappa
Nervión
Pinuarekin egin daitekeen paperik onena!

Jasangarritasuna bermatzen
PEFC FSC
ziurtagirien bitartez

Gremitioen gida

PINTURAK

Pinturas Sagasta pinturak

APAINGARRIA ETA INDUSTRIALA

- Fatxadetarako proiektu bereziak (inpermeabilizazioak, barnizatuak, ...)
- Era guztietako barne eta kanpoko dekorazioak (lokalak, tabernak, etxebizitzak, ...)

Sagasta auzoa • Anbe Goikoa
48220 ABADIÑO • Bizkaia
Tel.: 629 143 944 - IBAI URIEN

DEKORAZIOA

a-metz

barne diseinua

Diseinua - Dekorazioa
Ideiak - Proiektuak 3D
Legalizazioak - Erreformak
Gremioen koordinazioa
Altzariak - Osagarriak

www.a-metz.com

Ibaizabal, 3A behea • Tel.: 94 681 84 81 • Durango

AROTZERIA

EGUIA s.l.

AROZTEGIA

- GREMIOEN KOORDINAZIOA •

Tel.: 94 681 77 46
Faxa: 94 605 69 06
Mug.: 669 655 169
Mug.: 629 587 653



Tabira kalea, 54 • 48200 Durango • info@carpinteriaegui.com

ELEKTRONIKA

URBASA ELEKTRONIKA TELEKOMUNIKAZIOAK

SALMENTA ETA KONPONENTA - TB - SOINUA - BIDEOA - IRRATIA
KOMUNIKAZIOA - ANTENA KOLEKTIBOAK - SATELITE BIDEZ - ALARMAK

Askatasun Etorbidea, 13 • Durango
Tel.: 94 681 33 03 • Fax: 94 620 15 80
urbasa@urbasatel.com
www.urbasatel.com

Panasonic

Telebés Instalaziole Ofiziala

ITURGINTZA

berriozabaleta

Iturgintza • Berokuntza

gremioen koordinaketa
jose miguel acedo

mug.: 609 381 887 • tel./fax: 94 623 18 55
berriozabaleta@yahoo.es
48230 Elorrio (Bizkaia)

GARBIKETAK

AZKARGI

GARBIKETAK

Bulego eta komunitate mantenimendua
Obra osteko garbiketa
Kristalizatuak eta alfonbrak

Goietia, 46 - 2. esk. - Elorrio - 615 79 12 15

ELEKTRIZITATEA ARGIZTAPENA

Material elektrikoaren salmenta

PUJANA

ELECTRICIDAD

Urkiola 2, behea - 48200 DURANGO - Tel.: 605 705 818

Solaguren kalea 3 - ABADIÑO
Tel.: 94 681 44 74
Faxa: 94 621 53 74
urtiaga_sl@terra.es

urtiaga

gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENEA

LORAZAINTZA

Jardines Patxi Lorategiak

Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santikurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085

ARGIZTATZE TEKNIKAK

MARKIEGI

Plateruen plaza 4, behea
48200 Durango
Tel.: 94 620 35 20
94 620 21 76
Faxa: 94 681 56 95
markiegi@markiegi.com



Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6
48215 lurreta • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com



Ubide

iturgintza

188 PK.
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net

Iturgintza, gasa eta berokuntza



ZALDIBAR

Maisuen Etxea bota dute abuztuan

Azken hilabeteetan eskolako gurasoek kezka erakutsi izan dute eraikinaren egoeragatik

Zaldibarko hezkuntza eremuak zeresana eman zuen joan zen ikasurtean, eskolako zein Haurreskolako guraso elkarrekeak ageritu zituztelako eraikinen baldintzen inguruan. Maisuen Etxea zena "zatika erortzen" zebilela zioten eskolakoek, eta kezkatuta zeuden euren umeak "arriskuan" zeudelako. Haurreskolakoek jolastokiaren egoera, hezetasunak eta ins-

talazio elektrikoak ipini zituzten arrazoi moduan. Maisuen Etxearen kasuan, arazoa urteetan luzatu dela salatu zuten gurasoek.

Horren aurrean, martxoan udalako aurrekontuetan onartu zuen hobekuntza zein eraiste-lanak udan egitea, 181.000 euro bideratuz. Zehaztutako moduan, abuztuko lehenengo astean bota zuten Maisuen etxea; herriko eragile batzuen elkargune ere izan da azken urteetan. Alboko Zumeagatarren etxea legez ezagutzen zena ere eraitsi dute, alkateak adierazi digunez.

Egunotan ingurua atontzen dabilta, aurrefabrikatutako modulu bat-lau urtez erabili barik egondakoa-lekualdatu eta Haurreskolarako erabiltzeko. Modulu hau urtarrilerako izan gura dute prest, Partzuergoari baimena eskatu eta zabaltzeko. Alkateak dioenez, "beharrezkoa da Haurreskolako zerbitzua zabaltzea, Zaldibar hazten dabilelako". ■ M.Onaindia

Martxoan, aurrekontuetan onartu zuten hobekuntzak zein eraistea udan egitea

Ingurua atontzen dabilta, aurrefabrikatutako modulu bat lekualdatu eta Haurreskolarako erabiltzeko

Udalaren egoera orokorra ezagutzeko aukera, urrian

"Gardentasuna" helburu, Arantza Baigorrik ezinbestekotzat jo du herritarrak informatzea

Maiatzeko hauteskundeetan jazo-tako gobernu aldaketaren ondoren, Bildu koalizioa udalaren egoera ezagutu eta herritarrei helarazteko lanean dabil, hedabideei adierazitakoaren arabera. "Zaldi-

batzarra deituko dute urrian. Arantza Baigorri alkateak azaldu duenez, oraindik ez dute data zehatzik finkatu: "Lehenengo pausoa informazio osoa izatea da, gero antolatuta eta era ulergarrian herriari helarazi ahal izateko". Batzarrekogai-zerrenda ere aurrerago jakin eragingo dute.

Urriko ekimen horregaz, "parte-hartzeari hasiera" eman gura diote. ■ M.O.

Ekimen horregaz, "parte-hartzeari hasiera" eman gura diote

bartarrek behin eta berriz galde-tu izan digute udaleko egoerari buruz", diote. Bilduk programan horren berri emango zuela agindu ei zuen eta, horretarako, herri-



Jolasgunea handitu da lanen ondorioz. Delfin Zubizarreta

IZURTZA

Etxano auzoko ur biltegiako hustubidea berrizteko lanak

Etxanoko ur biltegiaren hustubide berria egiteko lanak burutzeko proiektua garatuko du datozen hilabeteetan Bilbao Bizkaia Ur Partzuengoak Izurtzan. Udalean ikusgai egon da azken asteotan proiektua, eta alegazioak aurkezteko aukera egon da.

180.000 euro inguruko aurrekontua daukan obra da burutuko dutena

Urtebeteko epea izango dute ur biltegiaren hustubide berria egiteko lanak amaitzeko

Guztira, 180.000 euro inguruko aurrekontua daukan saneamenduagaz loturiko obra da Etxano auzoan datozen hilabeteetan burutuko dutena, eta urtebeteko epea edukiko dute obraren arduradunek lanak amaitutzat emateko. ■ I.E.

Correosen erantzunik ez du oraindik jaso udalak

Correosek bere bulegoan ezarritako ordutegi murrizketa dela eta, sinadura biltzea bultzatu zuen udalak, beharginekin batera. "Zaldibar handitzen dabilen herria dela kontuan izanda, erabakia ez da ulergarria", adierazi du Arantza Baigorri alkateak. Guztira, 835 lagunengana babesa jaso du kanpainak, eta sinadura horiek idatzi batez bidali zituen udalako Correosen ordezkarietara, uztaila amaiera aldera.

Alkateak aurreratu digunez, oraindik ez dute jaso erantzunik, eta "iraila hasieran berrin bat izateko itxaropena" dute. Ordutegi murriztua goizetik eguerdira pasatu duten arren, arazoa ez dela konpondu diote. ■ M.O.

MALLABIA

Antzinako ogibideak Zengotitako jaietan

Zapatuan, txopoa jarrita, auzotarrendako afari merienda prestatuko dute Zengotitan

Txopoa jarri eta afari-merienda-gaz emango diete jaiei hasiera. Meza nagusia domekan 11:30ean izango da, eta ondoren txerriaren hanka eskegiko dute. Berrizko

Asto probak, bertsolariak, bolo txapelketa eta umeen jolasak antolatuko dituzte

San Lorentzo dantza taldearen emanaldiaren ostean, omenaldia eskainiko dute. 13:00etan antzinako ogibideen erakusketak batuko ditu Txurrukanekoa

gazta egiten, Laudioko Miriam artilea lantzen eta Imanol ardiak moztzen. Xabier Amuriza eta Beñat Ugartetxea bertsolariek giroa alaituko dute. Txarriaren hankaren altuera neurtuta, auzo bazkarian elkartuko dira. Arratsaldeko 17:30ean bolo txapelketa eta 18:00etan umeen jolasak antolatuko dituzte.

Abuztuaren 29an, 12:00etan, auzoko hildakoen aldeko meza eskainiko dute, eta gero bolo txapelketa. Arratsaldean asto probak, Lumagorri oilasko erre jana Elizalde trikitilariagaz, eta karretilaren zozketa izango dira. ■ J.G.

Durangaldeko Baserritarren Elkarte





Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA



- Oinetako patologiak
- Neurriera egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz



A. Urreta
 podologia
 Herriko gudarien kalea, 10 - behea
 48200 DURANGO
 Tel./Faxa: 94 621 54 04

ABADIÑO

Alk postua biak EAJri Amankomunazgoan

Durangoko Amankomunazgoko euren ordezkari biak "EAJri utzi" dizkiote independentetek

Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoan euren alderdiari zegozkion ordezkari biak "EAJri laga dizkio" Abadiñoako Independententek alderdiak, ohar batean jakitera eman dutenez, "bi alderdien artean adostutakoa betez". Alkatea izendatzeko ekainean egindako osoko bilkuran "jeltzaleak abstenitu izanak ahalbidetu zuen Jose Luis Navarro alkate izatea", azpimarratu du Abadiñoako Inde-

pendienteak taldeko gobernua ohar berean.


Jeltzaleen eta Independententeen arteko akordioaren barruan onartu zuten alderdi biek, uztailaren 26ko udalbatzarrean, Amankomunazgoan Abadiñoako talde independenteari zegozkion eserleku biak EAJri lagatzea.

"Ordezkaritza politikoagaz horrela jolastea onartezina" dela azpimarratuz, kontra bozkatu zuen bilkura hartan Bilduk, eta "arduragabekeriaz jokatzeari iruditzen zaiela" herriak alderdi batek ordezkatzea erabaki dituen eserlekuak beste alderdi bati ematea eta honek onartzea, salatu zuten ohar batean.

Durangoko Amankomunazgoan hamahiruna ordezkari daukate, horrenbestez, Bilduk eta EAJk; PSE alderdiko ordezkari bakarraren bozkaren arabera erabakiko dute Durangoko Amankomunazgoko mahaiburutzak. Irailean burutuko da Amankomunazgoa eratzerako osoko bilkura. ■ I. Esteban

"Bi alderdien artean adostutakoa bete" duela nabarmendu du Alk

Hamahiruna ordezkari daukate orain Bilduk eta EAJk Durangoko Merinaldeko Amankomunazgoan; bat PSEk



Irailean egingo dute Amankomunazgoaren osaketa plenoa.

OTXANDIO

Mendi bizikleta martxan izena emateko aukera, irailaren 8ra arte

Otxandion VII. Mendi Bizikleta Martxa ospatuko dute irailaren 10eko larunbatean. 40 kilometroko martxa horretan parte hartzeko izen ematea irailaren 8ra artekoa da. Udalaren webgunean izen-emate orria eskuragarri dago, www.otxandio.net-en. Bes-

Martxa irailaren 10ean egingo dute; zazpigarren aldia izango da aurten

tela, martxaren egunean bertan, proba hasi aurretik, izena emateko aukera ere izango da. Federatuentzat 10 euro izango da izen-ematea, eta federatuta ez daudenentzat 12 euro.

Izaera lehiakorrik ez duen martxa 09:30ean hasiko dute plazan, eta hantxe bertan helmugaratuko dira. Haurrentzat eta bizikletan ibiltzeko ohitura gutxiago dutenentzat, zailtasun txikiagoko ibilbidea ere prestatuko dute. ■ J.D.

Abuztuko azken zapatuan, Errogatiba Eguna Urkiolan

Udaleko ordezkariak eta izena eman duten 190 jubilatutako batuko dira bihar bazkaritarako Urkiolan

Abuztuaren 27an ospatuko dute Errogatiba Eguna Urkiolako Santutegian. Goizeko 09:00etan Zelaie-tako Andra Maria ermitatik aterata, prozesioan joango dira hainbat lagun San Rokegaz, eta 10:30ean autobusa hartuta abiatuko dira Urkiolarantz beste zenbait.

San Rokeren prozesioa 09:00etan abiatuko da Andra Maritik Urkiolarantz

Egun-pasa joandako hainbat bisitari jasoko ditu, bihar goiz eta eguerdi partean, santutegiak; eta

Bizkarra, Lagunetxe eta Buenos Aires jatetxeetan bazkalduko dute Abadiñoako ia berrehun jubilatutak.

Meza nagusia, 11:30ean, eta Talde Batuak taldeko dantzarien emanaldia izango dira goizean. Bazkalostean, berriz, Kantu taldeagaz erromeria izango da aukeran, eta 18:00etan abiatuko dira herri-ira bueltan. Eguna amaitzeko, Lotxorekin erromeria eta afaria egingo dituzte Zelaietan. ■ I.E.

Meza nagusia, 11:30ean, eta Talde Batuak taldeko dantzariak, eguerdian

Kaleratutako udal langilearen aldeko epaia

Abadiñoako Udaleko langile baten kaleratzea baliogabetzea ebatzi du Lan Arloko Epaitegiak

ELA Sindikatuak hedabideetara bidalitako idatzi batean jakinarazi duenez, udaberrian kaleratzea bidegabea salatu zuen langileari "arrazoia eman dio Bilboko Lan Arloko 9. Epaitegiak, eta Udaleko

Lanpostura bueltatzeko eskubidea aitortu dio epaitegiak langileari

Alko Jose Luis Navarro alkateak "kaleratzerik ez" zela egon dio, "kontratua bukatu" egin zitzaioala

lanpostura itzultzeko eskubidea aitortu". Apiriletik gaur arteko soldatak ordaindu beharko dizkio udalak, gainera, langileari.

"Aldi baterako kontratatutako langileek finkoak diren postuetan" zihardutela salatu zuen ELAk udaberrian: dagokion lan-eskaintza publikoaren bitartez postu horietan diharduten langileak lan taldeko behargin finko bihurtu ordez, "sei hilabetetik sei hilabeterako" kontratuak egitea egotzi zion sindikatuak udalari.

Talde Independenteko Jose Luis Navarro alkateak, "kaleratzerik ez zela egon, kontratua bukatu zela" azpimarratu du. ■ I.E.

GARAI

Udaletxeko teilatuaren konponketa, martxan

Abuztuan hasi dituzte Garaiko Udaletxeko teilatua konpontzeko beharrak, eta hile honetan bertan amaitzea itxaroten dute. Apirilean adjudikatu zituen lanok udalbatzarrek, eta epe hori ipini zuten burutzeko.

Egitasmoa aurrera ateratzeko 112.120 euroko inbertsioa egin du udalak. Ordezkarien esanetan, itoginak agertu izana dago teilatua konpontzeko arazoien artean. Beharginak lanean topatu ditugu egunotan, eta eraikinak ez ohiko itxura hartu du, aldamiok inguratutako eta. Ikasturte berriagaz batera estreinatuko dute teilatu berria. ■ M.O.

BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda
Grupo CATALANA OCCIDENTE
Jose Antonio Agirre Lehend. 8 • 48200 Durango
Tel.: 94 620 27 10 • Faxa: 94 681 65 77

GAER DESINFEKZIOAK
Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:
LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZISITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...
Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tf./Faxa: 94 622 57 74 - 48240 BERRIZ Mug: 658 75 72 79

ALBERDI
HARATEGIA HARATEGIA
DURANGO

Bertako okela
Aurretiaz prestatutako janariak
Askatasun etorbidea, 1
Tf: 94 681 76 58
48200 DURANGO

ODOLOSTETAN GAILEN - 2009
Eminencia en la elaboración de Morellas
Alberdi Harategia

ALBERDI
prekozinatua

Ibero Cruceros-en laguntzarekin



B A U T I S T A
MUEBLES Y DECORACIÓN
LAUDIO - ABADIÑO

UDAKO BESTERAPENAK

*eta ehunka itsas bidaiak
oparitzen jarraitzen dugu*



chaiselongue sofa

+

*bi lagunentzako
itsas bidaiak opari*

Ekolarruz eginiko chaiselongue sofa. % 100 garbigarria.
Jesarleku irristagarriak. Buruko etzangarriak. Ezkutuko bi pouff besoetan.
Chaiselongue altxatuta kutxa ere badu. Zuri eta moka koloreak aukeran.



895 €

irailaren 14ra iraungo du beherapen kanpainak, edo izakinak amaitu arte

Santa Cruz poligonoa 1 zk LAUDIO (A-68aren 3 irteera)
Urbitate poligonoa 4 partzela, 2 pabilioia ABADIÑO (Eroski ondoan)

BEZEROAREN ARRETARAKO TELEFONOA: 94 672 77 00
www.bautistamuebles.com

Durangaldean labor

Lau atxilotu Berrizen, lonja batean lapurtzen saiatzeagatik

Domekatik astelehenerako goizaldean, ordubata aldera, Ertzaintzak 18, 21, 24 eta 32 urteko lau lagun atxilotu zituen Berrizen, lonja batean lapurtzen saiatzea leporatuta. Ertzaintza bertaratu zenean, ateko itxidura bortxatuta zegoela ohartu ziren, eta inguruak miatu zituzten. Lehenengo lagun bi aurkitu zituzten, eta ondoren beste bi hesi baten atzean gordeta. Atxilotutako bik aurrekariak dituzte.

AHTaren Elorrio-Atxondo tartea esleituko dute

Abiadura Handiko Trenaren Elorrio-Atxondo tramua esleituko du Adif-ek. Irailean lanak esleitu eta urtea amaitu aurretik tramu horretako lanak hastea da asmoa.

Horrez gainera, Abadiño-Durango tartea irailerako amaituta egotea itxaroten dute. Abuztuaren zehar Mañaria erreka gainetik doan biaduktua ere amaitu dute.

Pirinioetara irteera egingo du Alpinok

Irailaren 1ean 0 eta 11n Pirinioetan dagoen Camillen Bidea egiteko irteera antolatu du Alpino-Tabira mendizale taldeak. Bazkideentzat 55 euro da izen-ematea, eta gainerakoentzat 80 euro. Lehenengo egunean Urdolescun ibilbidea osatuko dute, eta bigarrenetan Linzaraino helduko dira.

Lan poltsa berri du Abadiñoko Udalak

Guztira, 63 lagunek eman dute izena lan poltsarako. Bost lanetan jarduteko pertsonak batu dira zerrendatan. Umezainak (49 plagan), adinekoen zaintzaileak (18), eskola partikularrak emateko lagunak (39), aisialdiko begiraleak (39) eta kirol begiraleak (16).

MAÑARIA

Zorpetzea udalaren errekurtsioen %120koa dela dio Bilduk

Udalaren egoera ekonomiko txarraren berri eman du idatzi batean, Bilduko gobernu taldeak

Alkatetza hartzean udalaz zer egoera ekonomikotan topatu duten herritarrei azaltzeko, gutun informatiboa banatu du uda honetan, etxerik etxe, Bilduk. Bertan azpimarratu dutenez, aurreko gobernu taldeak 2001ean eta 2008an hitzartutako mailegu bi dauzka udalak: plaza egiteko eskatu zuten 240.404 euroko maileguagatik zorra 154.605 eurokoa da gaur egun, eta 668.717 eurokoa Dantzari taberna erostera bideratu

zuten 1.000.000 euroko mailegutik udalak bueltatzeko daukana.

Ezker abertzaleko gobernu berriaren esanetan, datozen urteetako udal funtzionamendua eta

Aurreko gobernuak 2001ean eta 2008an hitzartutako mailegu bi dauzka udalak, Bilduko gobernuak dioenez

kudeaketa baldintzatuko dituzte zor horiek: oharrean azpimarratu dutenez, "kreditu bi horien ondorioz, udalaren zorpetzea eguneroko errekurtsioen %120koa da, eta proiektuak eta obrak garatzeko beste mailegurik eskatzeko aukerarik ez dauka udalak, Aldundiak ez duelako baimentzen".

Proiektuak eta obrak garatzeko beste mailegurik ezin du eskatu udalak, legez

Idatzian, "herri programan hartu genuen konpromisoetako bat gestio gardena egitea" zela dio Bilduk, eta gutun informatibo horregaz, konpromiso hori aurreramateari ekiteaz gainera, lehenengo bi hiletan zer ikusi eta zer egin duten "adierazi gura" izan dietela herritarrei. ■ I.E.



Dantzari eraikina erosteko eskatu zuten mailegu handiena.

IURRETA

Asto bi, zaldia eta idia lehian probalekuan

Herri kirol erakustaldia irailaren 3an izango da



Iazko ekitaldian astoek eta zaldiek parte hartu zuten.

Harria herri kirol taldeak ekitaldi berezia antolatuko du irailaren 3rako, gaueko 22:00etan. Herri kirolen erakustaldian asto bi, zaldia eta idia lehiatuko dira zeinek iltze gehiago egin. Construcciones Vitorio Zelaiaren asto bi, Urkiaga arosteigiko zaldia eta Etxabe-Altunaren idia izango dira ekitaldian parte hartuko dutenak. Antolatuzaileek azaldu dutenez, talde bakoitzak 1.000 kiloko harria mugitu beharko du, 20 minutuko denboran. Sarrera doakoa izango dela jakitera eman dute elkartetik.

Orain lau urte Iurretan sortutako Harria taldeak hiru urte daromatza herri kirolen inguruko ekitaldiak antolatzen. Iaz asto eta zaldiekin prestatu zuten erakustaldia. Lehenengo urtea da hiru taldeko norgehiagoka antolatzen dutena. ■ J.G.

BERRIZ

Euskara eskolak jasotzeko matrikulazio epea

Irailaren 1etik 22ra eman daiteke izena klaseak jasotzeko; udalak diru-laguntza eskainiko du

Berrizko Udalak deialdia kalera-
tu du euskara ikastaroetan izena
emateko. Matrikulazio aldia dato-
rren egunean hasiko da, eta irai-
laren 22ra arte egongo da izena
emateko aukera. Udalaren diru-
laguntza jaso dezakete interesdu-

**Goizez, eguerdiz eta
arratsaldez emango dituzte
euskara klaseak**

nek, administrazioak ohar bidez
azaldu duenez.

Goizez, eguerdiz eta arratsal-
dez emango dituzte klaseak:
09:15etik 11:15era, 14:30etik
16:00etara, eta 19:00etatik
21:00etara. Mailatan banatuko
dituzte ikasleak: B1, B2, C1, 3. mai-
la-EGA eta C2. Horrez gainera,
autoikaskuntzarako aukera ere
egongo da. Berbalagun egitas-
moan—euskaraz berba egiteko tal-
de ez formalak—parte hartzeko ere
matrikulatu daiteke. ■ M.O.

NACEX

San Roke, 12 behe (48200 DURANGO)

Tel.: 94 620 01 62

Mug.: 666 444 101

4810.operativa@nacex.es

www.nacex.es

Informazio orokorra: 900 100 000

GALLASTEGI

gallastegiharategiak@euskalnet.net

1955 ean sortua



Baimendutako
harategia
Euskal Okela
Carnicería
autorizada

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

BERBAZ [>]

“Ume saharaiak ezagututa, ezin dugu geldirik egon hango egoeraren aurrean”

Bertan zein Tindufeko kanpamentuetan bizitakoaz jardun dugu etxean ume saharaiak hartu dituzten familiekin



**Julian Izaga,
Marije Orobio-
Urrutia eta
Garazi
Etxebarria •**

■ Ume saharaiak hartu dituzte euren etxeetan, Herria elkartearen bitartez

“Urte askoan horrela izan delako, egoerak horrela jarraitu behar duela dirudi”

Psikologikoki oso ukituta etorri nintzen. Hangoa ikusi eta gero, hemen ikustea edozer txorakeriatatik kezaka zelan gabiltzan...

G.E.: Bai, baina motibazioa ematen du ikustekak daukaten apurragaz zelan egiten duten aurrera, familian zelako maitasuna eta errespetua daukaten, auzokideen artean zelan laguntzen duten elkar... Bere garaian, kanpamentua andrek atera zuten aurrera, gizonak soldadu zebiltzalako. Apurka-apurka hori aldatzen doa; gizonak ez dira frontera joaten, bertan geratzen dira eta ez dago lanik...

Itxaropenik bai?

G.E.: 35 urte daramate egoera horretan, eta ematen du onartuta dagoela egoerak horrela izaten jarraitu behar duela. Politikariek ez dute ezer egiten, eta han jarraitzen dute; inoren lurretan, laguntzei esker bizirauten...

J.I.: Mobilizazio premia ikusten dut. Familia gehiago egotea gustatuko litzaidake, eta Gabonetan trailer bat barik hiru bidaltzea. Kalean eta instituzioetan aldarrikapen honek oihartzuna izan behar du. Umeekin bizitakoak derrigortu egiten gaitu egoera honen aurrean geldirik ez egotera. Umeak ezagututa, ez duzu Sahara edo Fronte Polisarioa ikusten, pertsonak daude hor. ■ A.Ugalde

Martitzen honetan hartu dute etxerako bidea Duran gon uda pasatu duten ume saharaiak. Bederatzigarren urtez, Herria elkartearen bitartez etorri dira umeak. Tindufeko kanpamentuetara bueltatu aurretik, agur jaia egin zuten barikuan. Orduan gerturatu ginen umeak etxean hartu dituzten familiekin berba egitera.

Bueltarako orduan, triste?

Julian Izaga: Bera joateak pena ematen dit, baina ez nago triste. Eurentzat hemengo egotaldia indarberitze eta opor garaia da; etortzeko gogo handia dute, eta bueltatzeko ere irrikitan daude.

Marije Orobio-Urrutia.: Ez dute penarik, ez. Han ez daukate ezer, baina etxera doaz.

Asko aldatzen da zuen egunerokoa umeekin?

J. I.: Batzuek ez dute ulertzen uda horrela pasatu gura izatea; oporrak beste modu batean konpartitzen. Oporrek erritmo aldaketa esan gura

dute, eta niretzat hau ezerezetik denerako aldaketa da. Sentimentu nahasiak daukat; gizartean geroago eta gutxiago elkarbanatzen dugun egunotan, elkartasuna pizten zaizu. Nabarmendu egin behar da Herria elkartearen lana; itzela da.

Alde handia dago hango umeengandik hemengoengana?

Garazi Etxebarria: Denean jartzen dute arreta, eta beste balore batzuk daukate; beste ikuspuntu batetik ikusten dituzte gauzak.

J.I.: Nire umezaroa gogoratzten didate. Orduan etxeetako ateak ez ziren sekula ixten. Familia oso egituratuta zegoen, eta elkarrekin bazkaldu eta afaltzen genuen. Talde sentimentua hemen baino handiagoa dute; elkarrekin

“Auzokideen arteko hartu-emanak asko sendotu da ume saharaiak esker”

“Hemen materialak ez diren gauza asko galtzen gabiltzala konturatzen zara kanpamentuetan”

egoteko gogo hori. Auzokideen artean hartu-emanak sendotu egin da; ume saharaiaren adineko umeen etxeetan ateak zabaldu egin dira. Azken batean, hemen horrenbesteko garrantzia duen edukitzearen kontzeptua ahaztuta, izateak dauka garrantzia.

Zelakoa da euren bizimodua han?

G.E.: Jaiki eta eskolara joaten dira. Batzuek ordu bete inguru egin behar dute oinez. Gero etxean zer edo zer jan, eta arratsaldean jolastu edo lanak egiten laguntzen dute. Antzera da egunero.

M.O.: Hemen lehenago izaten zen moduan, jende nagusia kontuak kontaktzen ibiltzen da, eta umei asko gustatzen zaie entzutea. Errespetu handia diete nagusiei; familien egituraren agintzen duena amama izaten da.

Marijek eta Garazik kanpamentuetara joateko aukera eduki duzue. Zelako esperientzia izan da?

M.O.: Gauza material larregi dauzkadala pentsatuz etorri nintzen ni. Materialak ez diren gauza asko galtzen gabiltza; koadrilan jesarrita egon eta kontuak kontaktzen egote hori, adibidez. Batzuetan ematen du ez daukagula denborarik eguna zelan joan den elkarri kontatzeko ere.

G.E.: Polita da hara joatea hori guztia ikusteko, baina gogorra ere bai. Gu erreginak legez hartu gaituzte, baina ur bidioiak ikusten dituzu, kamioia pasatzen... Guk ez dugu ikusi janari banaketa zelan egiten den, baina batzuetan ez da heltzen, edo gutxi heltzen da...

M.O.: Nik atunaren banaketa ikusi nuen, andren artean.

EDERTASUN GIDA

ESTETIKA ZENTROAK

Cristina Agirre
• apaindegia •

CA

- GORPUTZ ETA AURPEGIKO TRATAMENDUAK •
- ARGIZARI BIDEZKO DEPILAZIOA -beroa eta epela- •
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA •
- DEPILAZIO MEDIKU-LASERRA •
- MAKILAJEA •
- ESKUZKO DRENAJE LINFATIKOA (VODDER) •

Fray Juan de Zumarraga, 9-1B • Tel.: 94 681 42 05 • Durango

Ana Camarero
• estetika zentroa •

LASER FOTODEPILAZIO MEDIKO-ESTETIKOA

- Aurpegi garbiketa
- Argizari beroz depilatzea
- Argizari epelez depilatzea
- Depilazio elektrikoa
- Gorputz tratamenduak
- Solariuma
- Mikropigmentazioa

Golenkale 16-1.esk • Tel.: 94 681 73 80 • Durango

Nerea Masaje eta Estetika Zentroa

Nerea Mallabiabarrena • Merche Garcia
Masajista Estetizista

- Kirol masaje terapeutikoa
- AYURBEDAko masaje indiarrek antiestres olio beroekin
- Diodo bidezko laserra (lightsheer)

Nutrizio eta kosmetika zelular aktiboa 100% naturala

synthesis

Untzillatx, 5 - 1C • Tel.: 94 681 86 75 • Durango



- Ana Camarero
- Estetika zentroa dauka Durangon

Oinak bistara ateratzeko unea

Zergatik gomendatzen duzu oinetako tratamenduak egitea?

Neguan zehar oinak estalita izaten ditugu, eta udan, berriz, erakusteko ohitura daukagu. Modak hala dio, bes-teen begietarako prest eduki behar ditugula. Itxura estetiko ona lortzeko, zerbitzu osoak eskaintzen ditugu: azazkalak moztea, berdintzea, kutikulak kentzea...

Zer zapata izan daiteke kaltegarriena oinentzat?

Batez ere, takoidun oinetakoek sortzen dituzte gogortasunak, eta hauek desagartzeko lana egiten dugu tornu bat erabiliz. Esfoliatu ondoren, ondo hidratatzen ditugu, krema bereziekin zein parafinagaz.

Masajeak ematea ere komenigarria izango da, ezta?

Bai, oso garrantzitsuak dira. Sihatu erakoak landu daitezke, thailandiarrek, ayurvedikoak, harri beroekin eginda-koak... Erreflexologia beste aukera bat da; baita bainu beroak ere.

Jendeak ematen al dio garrantzirik oinen tratamenduari?

Bai. Udan topera egiten dugu lan pedikura eta antzekoekin. Oinak bistara ateratzen ditugun unea da, eta jendeak garrantzia ematen dio horri.

Neguko zainketa txarraren eraginez sortzen dira arazoak?

Gehiengoak urtean zehar zapatetan sartuta eta kasurik egin barik edukitzen ditu oinak. Batzuk zaintzen dira, baina orokorrean ez da hala gertatzen. Takoiak ez dira batere onak, eta horregatik izaten ditugu emakumeok gizon-ek baino gogortasun gehiago.

ILEAPAINDEGIAK

iunik ileapaindegia

astehenerdik asteazkenera
10:00-21:00

osteguna eta ostirala
09:00-22:00

larunbata
09:00-17:00

Antso estegiz, 1•Durango•Tel.: 94 621 64 91

NUKLEO ileapaindegia

myspace.com/pelukerianukleo

Nizeto Urkizu, 14 behe•Elorrio•Tel.: 94 658 29 96

KULTURA >

MUSIKA > DURANGON

Ez ohiko gaixotasunen ikerkuntzarako dirua biltzeko kultur jaialdia

Hamalau musika talderen zuzeneko emanaldiak eta beste hainbat kultur emanaldi eta ekintza, irailaren 30ean eta urriaren 1ean, **DuranWOP** jaialdian

Irabazi asmorik bako The Walk On Project izeneko elkarteak bultzatu eta Durangoko Udalak, BBK-k eta Plateruena kafe antzokiak lagundutako ekimena da irailaren 30ean eta urriaren 1ean Landako erakustazokak hartuko duen jaialdi kultural eta solidarioa: jaialdian batutako dirua gaixotasun neurodegeneratiboaren gaineko ikerkuntzan laguntzera bideratzea da ekimenaren ardatza.

Nazioarteko zein Euskal Herriko dozena bat musika taldek baino gehiagok hartuko dute jaialdian parte, The Walk On Project elkartearen helburuekin bat eginda. Besteak beste, Smile, Gari, Steve Wynn, Mariano Casanova, The Right Ons, The Grave Yatch Club eta Mi Hermana Corina taldeen emanaldiak daukate jaialdirako lotuta.



Musika, antzerkia eta umeentzako hainbat ekimen gozagai

Batutako dirua ez ohiko gaixotasunak ikertzeko erabiliko dute

Obregón durangarrak zuzendutako 'El Avaro' antzezlanak ikusgai

Ekimenagaz kolaboratzera etorriko diren aipaturiko musika talde horiez gainera, proiektuaren bizkarrezurra den The Walk On Band taldearen emanaldia ere gozatu ahalko dugu Durangon: gaixotasun neurodegeneratiboa daukan ume baten gurasoek gidatutakoa da proiektu hau guztia, eta aitaren eta musikari lagunen proiektua da jaialdiaren zutabe nagusia den The Walk On Band.

Familia osoarentzako jaia
Musikaz gainera, bestelako hainbat kultur emankizun ere eskaintzen ditu Walk On Project irabazi asmorik bako elkarteak antolatutako DuranWOP jaialdiak. Urriaren 1ean, Plateruenean izango da umeendako joko, magia eta ipuin kontalarien hitzordua, eta baita hainbat kirolelan jardutekoa.

Paco Obregón durangarrak zuzentzen duen Otro Teatro taldeak Molièren *El Avaro* obraren emanaldia eskainiko du, jaialdiaren egitarauaren barruan.



Ekitaldietan sei mila lagun baino gehiago itxaroten dituzte

Aurreratu dutenez, irailaren 30ean eta urriaren 1ean, Landako erakustazokan eta Plateruenean izango diren ekitaldietara 6.000 lagun baino gehiago gerturatzeara espero dute antolatzaileek.

Aste honetan, BBKren kutxazainetan zein webgunean ipini dituzte DuranWOP jaialdirako sarrerak salgai. ■ I. Esteban.

Hamalau musika talderekin osatu dute kartel erakargarria



Goiko argazkiko New York-eko Elliott Murphy musikaria The Normandy Allstars taldeko lagunak lagunduta etorriko da Durangoko elkartasun jaialdian parte hartzera. Hamabi urte zeuzkanetik musikari diharduen 1949an jaiotako Murphyrena legez, nazioarteko beste hainbat musikariren izenak jasotzen ditu kartelak: Steve Wynn, The Whybirds edo JC Brooks & The Uptown Sound, esaterako.

Rock, folk zein pop doinuak jorratzen dituzten beste hainbat

musika talde ere etorriko dira irailaren 30eko Durangoko jaialdira: besteak beste, M-Clan, Loquillo, Aurora Beltrán, Ariel Roth, Mariano Casanova eta The Grave Yacht Club taldeek eman dute baietza.

Emazteagaz batera ekimen honen antolatzaile lanetan diharduen Mikel Renteriren WOP Band taldeak eta lagunak ere eskainiko dute kontzertua Durangon; hainbat musikariren kolaborazioagaz grabatu duten estreinako diskoa aurkeztuko dute bertan.

- Elliott Murphy & The Normandy Allstars
- The Whybirds
- JC Brooks & The Uptown Sound
- Smile
- Loquillo
- Gari
- Steve Wynn
- Mariano Casanova
- The Right Ons
- The Grave Yatch Club
- M-Clan
- Ariel Roth
- Aurora Beltrán
- .../...



MUSIKA > EMANALDIA

Silboberri elkarteko lau txistulari Donostiako Musika Hamabostaldian

KLEM taldearen musika garaikideagaz uztartuta eskainiko dute Silboberri taldeko kideek emanaldia gaur

Gaur iluntzean, Donostiako Musika Hamabostaldiaren barruan, Kur-saal jauregian kontzertu berezia eskainiko du Silboberri txistu elkarteak. KLEM taldeagaz elkarlanean, hiru obra estreinatuko dituzte Donostia, beste lau obra ere interpretatzeaz gainera.

Silboberri taldeko Aitor Amilibia, Sergio Torices, Iñaki Martin eta Ortzi Torices txistulariek jardungo dute, 20:00etatik aurrera, Kur-saaleko emanaldian.

Aitor Amilibia, Sergio Torices, Iñaki Martin eta Ortzi Toricesek jardungo dute emanaldian

Perkusioak eta akordeoiak lagunduta jardungo dute kontzertuan Durangoko Silboberri elkarteko kide diren txistulariek,

Perkusioak eta akordeoiak lagunduta eskainiko dute txistulariek emanaldia

hain zuzen ere, KLEM (Kuraia Laboratorio Electroacústica Musical) taldeagaz elkarlanean: doinu elektronikoen esperimentazioan jarduten duen taldea da KLEM.

Besteak beste, Ituarte, Villaso eta Chamizoren lanak eskainiko dituzte. ■ I.E.



DANTZA > EMANALDIAK

Kriskitin Menorcan izan da udako jai egunetan, kultur trukean

Dantza emanaldi bi eskaintzeko joan dira dantza taldekoak Balearretara

Menorcako El Born taldeak gonbidatuta joan dira Kriskitin dantza taldeko kideak abuztuan Balearretara, eta Ciutadella hiriburuan eta Es Migjorn herrian eskaini dituzte dantza emanaldiak.

Lehenago ere, 2002an, egonak ziren Durangoko Kriskitin taldeko dantzariak Durangaldeko eta Euskal Herriko dantzak Balearretan erakusten.

Bidaia honetan, besteak beste, *Dantzari dantza* eta Lapurdiko, Nafarroako zein Bizkaiko hainbat herritako dantzak eskaini ditu Kriskitin taldeak.

Durangarrei ere Mediterraneo folklorea ezagutu eta gozatzeko aukera eskaintzeko eta hartu-eman sendotzeko, urrian, Durangora etortzera gonbidatu du Kriskitinek El Born taldea. ■ I.E.



ERAKUSKETA > DURANGON

Hiru ikasle gazteren lanak batu eta ikusgai ipini dituzte Art Leku pintura akademian



Hiru artista gazte Art Lekun izenburuko erakusketa dago ikusgai abuztuan eta irailan zehar Durangoko Zeharkaleko margo akademian. Bertan eskolak hartzen dituzten 12 eta 17 urteko hiru gazteren lanak ipini dituzte erakusketan.

Itziar Lavado, Jone Ercilla eta Aitor Marcos gazteek ikasturtean zehar Art Leku akademian egindako lanaren emaitza eta kurtsoan zeharreko bilakaera erakusten dute hautatutako lanek: gazteen sormenaren eta margogintzarako trebetasunaren adibide dira lanok. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA



Arantza Arrazola San Agustingo kudeatzailea

Abuztuan lanean

Lanean jarduteko hilabete arraroa da abuztua! Aurten, neure azalean baiez-tatu ahal izan dut. Herria hutsik dago, ia dena itxita dago, eta zuk San Agustingo bulegoko freskuran hartzen duzu babes.

Lanen bat bukatu edo urtean zehar jorratu barik utzi behar izan zenuen txostena amaitzeko, eta pentsatzeko; datorren urterako, 2012rako, planak egitera bideratzen duzun hila-betea izaten da.

Urte honetako abendura arteko aretoko programazioa inprentan dago dagoeneko; abuztua baino lehen dena lotuta uztea komeni izaten da, gero ezinezkoa baita inor aurkitu eta beharrezko material guztia batzea.

Bulegoko telefonoak ez du jotzen, abuztuan inork ez du tinbrea jotzen, orduak askoz ere produktiboagoak dira, hobeto kontzentratzea lortzen duzu, hobeto pentsatzea... Eta sentsazio arraroa izaten da hain epe luzera pentsatzea; badakizu datorren urteko inauteriak noiz izango diren, Aste Santuko oporrak noiz hartuko dituzun, zenbat zubi izango ditugun...

Urte amaierara arteko programazioa lotu barik badago ere, eta zelako harrera eta emaitzak lortuko dituzun jakin barik ere, planifikatu egiten dugu.

Arte eszenikoentzako, kultura-erentzako, garai oso txarrak datozela berba asko egin dugun arren, ez dut lortzen uda aurretik kontaktu zidatena burutik kentzea: gurearen antz handia daukaten herri bitan, Bizkaian eta Gipuzkoan, programatutako ikuskizunak bertan behera utzi behar izan zituzten ikusle faltagatik. Ikuskizun biak euskarazkoak eta Euskal Herriko konpainiek sorturikoak zirela gertatzen zait mingarrien.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

IRAILAK 9 22:00etan
EL MUNDO + SATORI
IKER UNDERSOUND & RUBEN COSTAS
GAU ELEKTRONIKOA. 11-13euro.

IRAILAK 15 22:00etan
ANNA CALVI
HEINEKEN MUSIC SELECTOR
KONTZERTUA. Sarrera: 15-20euro.

IRAILAK 16 22:00etan
DISORDERS +
NEVER SURRENDERS + DOCTORS KLUB
KONTZERTUA/AGUR JAIA. Sarrera doan.

www.plateruena.net

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

irailaren 23an

DENBORALDI

berria!

San Agustin KULTUR GUNEA DURANGOKO UDALA

Hitz

liburu-denda

artekalea 14,
durango (bizkaia)
info@hitzliburudenda.com
946 810 776

IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Gutunak @

Durangoko jaiak arriskuan

Ez dabil pozik Pantxike, ezta Patxikotxu ere. Durangoko Txosna Batzordea osatzen dugun elkarteetako herritarrok ere arduratuta gaude, oso. Urrun joan barik, uda sasoi Oiz eta Mugarra artean pasatu duzuen herrikideok ezagutuko duzue seguru-erik gure ezinegonaren zergatia; beste askok, ostera, beharbada ez. Hau dela-eta, gutun honen bidez gure egoeraren berri eman gura dizuegu denori.

Durangoko jaiak hasteko hile eta erdi bakarrik geratzen den arren, ez dakigu oraindik txosnagunea non kokatu ahal izango dugun. Txosnen kokagunearen gainean udalarekin sinatutako akordioa 2009an amaitu zen. Udal ordezkariak ordurako tren lurperatuta egotea espero zuten, eta txosnagunea tren lurperatu ostean Ezkurdin -herri erdigunear- atonduko luketen zabalgunean kokatzeko asmoa helarazi ziguten. Baina 2011. urtean, oraindik, bai trenak bai txosnagunearen kokapenaren inguruko auziak lurperatu gabe jarraitzen dute.

Udalak ez du gurekin akordio batera heltzeko interesik erakutsi, eta orain arteko errotazio berdinarekin jarraitu gura du. Hau honela, datozen jaietan Zumar kalera, hau da, herritik kanpora bialdu gura gaitu. Txosna batzordeak, ostera, ez du inposaketa burubakorik onartuko, eta ez du txosnagunea Zumarkalean ipiniko. Gure helburua herritarren parte-hartzea bultzatuz herriko jai giroa alaitzen laguntzea da, eta horretarako herrian bertan egon behar dugu. Horregatik, udalak herritik kanpo gura gaituela dirudien arren, historikoki gure ohiko lekua izan den Pinondon egon behar dugula uste dugu.

Udalaren egoskorkeria tarteko jaiak arriskuan ikusten baditugu ere, urtero legez, haur, gazte zein helduentzako ekintzez osaturiko egitarau oparoa prestatzen darraigu. Hortaz, badugu oraindik udalarekin akordio batera heltzeko itxaropenik. Baina, horretarako zuon guztion indar eta laguntza behar dugu, eta hasteko txosnagunea Pinondon izatea eskatzeko sinadura bilketa jarri dugu martxan. Badakizu! Jaia ez da inoiz amaitzen gura ez

badozu, jaia ez da inoiz amaitzen kantatzen badozu, jaia ez da inoiz amaitzen bere alde borrokatzen badozu...

Durangoko Txosna Batzordea

Klik batean @



Bertan behera utzitako autoa

Traña-Matienan, San Blas hotelaren parean utzitako auto bat dago. Badira hiru bat urte bertatik mugitu barik dagoela; irudietan ikusten den moduan belarra ere hazi da inguruetan. Noiz erretiratuko dute?

Sei hankako mahaia



Dani Maeztu Aralar

Zerbitzu uria


Durango zerbitzu hiria dela argi geratzen da gure herrian enplegua ematen duten jarduerari begiratzen diegunean. Zenbait kasutan, Durangoren egoera sozio-geografikoa dela-eta, berez dagozkio hainbat zerbitzu: osasun arloan, justizian eta hezkuntzan, esaterako. Baina, horrez gain, zerbitzu sektorea estrategikoa dela jakinik, gure herrian falta da arlo horretako herri plangintza zehatza eta horren aldeko apustu garbia.

Durango, zerbitzu arloko, langabezia bikoiztu egin da hirugarren sektorean. Eta badirudi premia horrek batzuen imajinazioa ziztatu duela. "Onena emateko momentua da", edo antzeko zerbait zioen EAJren hauteskunde kanpainako leloak. Bitxia benetan, entzutea, orain, gaur dela onena emateko momentua, 28 urte gobernuan egon ostean.

Zerbitzu sektorea estrategikoa bada, beharrezkoa da plangintza zehatza eta aldeko apustua

Durango Kiroleneri (kirol hezkuntzan dagoen eskola ofizial bakarra) azpiegitura duina emateko premiazkoa da. Beharrezko da, baita ere, merkataritza arloan diharduten elkarteekin elkarlanean aritzea, eta eurekin adostutako dinamizatzailer postua sortzea. Merkatu plaza ere suspertu daiteke, komertzioaren traktore bihurtzeko eta bertako eta sasoiko ekoizleei lehen-tasuna emateko.

Azken puntu horri begira, Aralarrek eta Bilduk mozioa aurkeztu genuen udaletxean, merkatu plazak dituen gabeziak konpontze aldera. EAJk ere ekimena babestu zuen, euren programan puntu hori jasota omen zegoelako, onena emateko momentua omen baita. Nora begira egon dira ba 28 urte hauetan?



Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta - astekaria@anboto.org
Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa

anboto
durangaldeko astekaria
Anboto komunikabideak Elkarte
2011ko abuztuaren 26a - 10. urtea - 425 zk.

Laguntzailea:


Eta honako udal guztiak:

Zuzendaria: Jone Guenetxea.
Erredakzio burua: Joseba Derteano.
Administrazio burua: Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onandia, Amaia Ugalde.
Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarieta.
Testu zuzentzailea: Igor Elortza.
Argazkilaria: Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.

laguntzaileak

ABADIÑOKO
UDALAATXONDOKO
UDALADURANGOKO
UDALAELORRIOKO
UDALAMALLABIKO
UDALA

LAUHANKA >



Oinarrizko zainketa batzuk landuz gero, maskota erakargarria izan daiteke

Lo egiteko, lasto piloa ezartzea dago aukeran; sarritan garbituko diogu ohea

Kortako hegaztientzako elikagai berezia ematea da egokiena

Etxeko txikienentzako lagun bikaina izango da ahatea

Maskota moduan ohikoa ez den arren, konpainia ona egin dezake etxean; batez ere, umeen kasuan. Zabalera handiko arrainontzi berezi bat da beretzako bizileku egokiena, jateko eta edateko tokiekin.

Lakuak, errekek eta itsasbazterreko urak dira ahatearen berezko lekuak, eta bertan aurkitzea da normalena. Baina oinarrizko zainketa batzuk landuz gero, etxerako maskota erakargarria ere izan daiteke. Uretako hegaztia da ahatea, antzara eta zisnen familiakoa, besteak beste. Antartidan izan ezik, munduko kontinente guztietan bizi da, baina Islandia, Groenlandia, Ipar Amerika, Japonia eta Siberiako iparraldean du sorlekua.

Ezaugarriak

25 zentimetro inguru hartzen du luzeran, eta 15 altueran, gutxi gora-behera. Temperatura iraunkorreko animalia da ahatea, eta

arnas-aparatu egokitu dauka hegaz egin ahal izateko. Sama labur eta atzerantzako hankekin, balantzak legeko ibilkera ezaguna erabiltzen du.

Bere hegoek, eusteko eta bultzatzeko balio diote, batez ere, hegaldi laburretan; izan ere, hegoak ez dauka oso luzeak. Muskulu pektoral indartsuen eta egitura konplexuko lumen bidez lortzen du aireratzea.

Ugalketa

Ugalketari dagokionez, aipatzekoa da ahateen arteko espezie gehienek lurrian egiten dutela kabia. 4 eta 12 arrautza artean errun ditzake ahateak, eta lautik sei atera bitarteko prozesua

izango da ahate txikia jaio baino lehenagokoa.

Bizilekua

Maskota legez, ahatearentzako bizitoki egokiena dimentsio zabaleko arrainontzia da. Altueran 60 zentimetro izango ditu gutxienez, eta jateko zein edateko guneak bildu beharko ditu. Lo egiteko lasto piloa ezartzea da aukeretako bat; bere ohea sarritan garbitzea komeni da.

Janariari dagokionez, kortako hegaztientzako elikagai bereziak ematea da egokiena; lantzean behin barazkiak ere eskaintzea ez dago txarto. Ezin ahaztu beti eskura izan behar duela ur freskoa eta garbia.



KIROLAK >

Aurpegi berriak, lehengo filosofia



Asteburu honetan hasiko du liga Durangoko Kulturalak, etxean, Alaves Bren kontra.

Durangoko Kulturalak 12 aurpegi berri ditu, entrenatzailearena tartean. Hala ere, taldearen jokamoldea ez da aldatuko: sormenak aginduko du

Durangoko Kulturalak asteburu honetan ekingo dio hirugarren mailari, Alaves Bren kontra. Jokalari berri asko daude taldean, baina zelai erdiko blokeari eutsi diote. Beraz, aurten

ere baloiaren jabetza eta sormena izango ditu ikur taldeak; iaz hain ondo funtzionatu zuen eredu hori erabili dute aurrendenboraldian, eta halaxe baieztatu du Rikardo Txintxurreta kirol zuzendariak ere; Pini-

lla, Conde, Gorroño eta gainerako artistek ezarritako erritmoan jokatuko du taldeak.

Axier Intxaurreta Amorebietara joanda, Mikel Agirregomezkorta (36 urte, Romo) izan-

go da entrenatzaile berria. Orain urte bi Bakaraldok fitxatu zuen denboraldiaren bigarren erdirako, eta iazko abendura arte iraun zuen. Bere ondoren etorritako entrenatzaileek ere ez zuten Barakaldoren norabidea zuzendu, eta, azkenean, hirugarren mailara jaitsi zen. Athleticekin lehen mailan jokatua da Agi-

regomezkorta, eta Albacete eta Hércules taldeetan ere jardun du. Entrenatzaile moduan, hauxe du bere bigarren erronka, Barakaldoren ondoren.

Harrobiko jokalariek

Gaspe mailako hiru jokalariek lehengo taldeagaz jokatu dute, eta horietako batek, Mikel Arizmendiarretak, jarraitu egingo du. 18 urteko gazteak zelai erdian zein erdiko atzelari moduan jokatu dezake. Ugaitz Aurrekoetxea Berrizera joango da, eta Jon Leturiaga lurretakoren edo Berrizen artean aukeratzeko dabil.

Kulturalak entrenatzaile berria du aurten: Mikel Agirregomezkorta

Bestalde, honako jokalariek hauek utzi dute Durangoko Kulturala: Gaizka Meléndez, Ibai San Martín, Iker Martínez, Ibon Espinosa, Jon Larrinaga, Unai Mugika, César Fernández, Mikel Muniozguren eta Hodei Onaindiak; azken bi horiek 2. B mailan jokatuko dute aurten, Amorebietan. ■ J.Derteano



Joseba Garcia
25 urte
Durango

Gernika taldetik datorren aurrelaria. Hain zuzen, Kulturaletik joan zen Gernikara orain urte bi. Amorebieta taldera joan den Mikel Muniozguren hutsunea betetzeko arduraz izango du.



Jon Zubero
30 urte
Lemoa

Zalla taldetik datorren aurrelaria. Joseba Garcia-ren antzerako ezaugarriak ditu. Erasoko jokoa antolatzen lagundu dezake hegalekara desmarkatuz, baina, batez ere, errematatzaile da.



Adrian Mallagaray
18 urte
Durango

Athleticen gazte mailako taldetik berreskuratutako erdi puntako jokalaria. Kulturaletik joan zen, eta lesio baten ondorioz ezin izan du bere mailarik eman Athleticen. Apurka erritmoa hartzen dabil.



Borja Luis Blasco
25 urte
Eibar

Leioa taldetik datorren erdilaria. Taldeko erdilari trebeekin bizkartzain lana egingo du. Jokalari garaia denez, aireko jokoa menderatzen du. Jokalari polibalentea da eta hainbat postutan jokatu dezake.



Ander Garmendia
27 urte
Otxandio

Elgoibar taldetik berreskuratutako ezker hegaleko atzelaria. Eneko Viñasegaz batera, ezker hegala osatuko du. Orain urte batzuk Kulturalan jokatu zuen, Rikardo Txintxurretaren aginduetara.



Jabier Garcia
23 urte
Leioa

Laudio taldetik etorri den eskuin hegaleko jokalaria. Kluba iaz ere saiatu zen jokalaria hau fitxatzen. Jokalari arina da, eta buruz burukoan abila. Erritmoa hartzen dabil, iaz gutxi jokatu ondoren.



Jagoba Portillo
18 urte
Ortuella

Sestao taldetik dator eta ezker hegalean jokatzen du normalean. Jokalari azkarra da, aurrerantz egiten badakiena, beraz, konfiantza hartzen duenean jokalaria garrantzitsua izan daiteke.



Eneko Txopitea
30 urte
Gernika

Amorebieta taldetik etorri den erdiko atzelaria. Hirulau urtean Barakaldogaz 2.B Mailan jokatu izan du eta esperientzia handiko jokalaria da. Geldikako jokaldietan trebea da eta gol asko egin izan ditu.



Unai Santamaria
22 urte
Basauri

Lemoa taldetik dator. Orain urte bi Amorebietaren atzealdea osatu zuen, Txopitegaz batera. Iaz Lemoan ez zuen hainbeste jokatu. Ezkerra da, entrenatzaileek asko baloratzen duten dohaia.



Andoni Andres
24 urte
Arrasate

Amurrio taldetik ekarri dute erdiko atzelari jokatzeke, nahiz eta gehiagotan jokatu duen euskarri moduan. Baloi jokatuta ateratzeko abildadea du. Aurrendenboraldian oso detaile onak erakutsi ditu.

Gidari euskaldun gazteen harrobi izateko sortua

Fly Group Racing Team talde berriak motor gidari gazteak trebatuko ditu; sortzaileen artean dago Aitor Martinez abadiñarra



Donostian egin zuten Fly Group Racing Team talde berriaren aurkezpen ofiziala.

Euskal Herrian motor zale-tasuna sustatzerako orduan, entrenatzeko zirkuituen urruntasuna eragozpen handia izan da luzaroan. Beraz, iazko ekainean Nafarroako Los Arcosen ireki zuten zirkuitua bendizio moduan hartu dute motor zaleek. Esaterako, Aitor Martinez abadiñar pilotuak, Herri Torrontegik eta beste hainbat eragilek aspaldiko ametsa errealitate bihurtzeko modua izan dute. Elkarlanean sortu duten Fly Group Racing Team taldeak motor zale euskaldun gaz-

gon eta Iturritxo kalean Abadiñon) eta gidari euskaldun gazteen harrobi izan gura dute, Espainiako zein nazioarteko txapelketatan lehiatu daitezten.

Oraingoz Iparraldeko Abiadura Txapelketako eta Mediterraneo Txapelketako hainbat lasterketetan aritu dira, nor bere kategorian. Gazteek emaitza onak lortu dituzte, eta Martínez ere gustura dago bere errendimenduagaz: lasterketa bi irabazi ditu; beste bi ezin izan ditu amaitu erorikoen eta arazo teknikoen ondorioz.

Fly Group Racing Team taldean izena eman gura duenak honako e-maila erabili dezake: aitor@supermoto13.com. "Durangaldeko gazteak anima-

ztea polita litzateke", dio Martínezek: "Ni mundu honetan hasi nintzenean ez nekien nora jo, informazioa non bilatu. Talde honegaz lehen urratsa emateko prozesua erraztu gura dugu".

Abendura begira adin guztietara zabalik egongo den motor eskola eratu gura dute, lur gaineko zein asfalto gaineko zirkuituetara joanez eta ikastaroak antolatuz. ■ J.D.

Espainiako Txapelketan aritzeko prestaketa lanetan dabilza orain

Oraingoz 9, 13 eta 15 urteko gazte bana dituzte taldean

Piloto euskaldun gazteen harrobi izan gura dute etorkizunean

teei euren afizioan sakontzeko eta trebatzeko aukera eskaintzen die. Oraingoz, lau gidarigaz ari dira. Aitor Martinez ez eze, hiru pilotu gazte dabilta: Iker Torrontegi gernikarra (15 urte) eta Oier eta Yarte Cascante (13 eta 9 urte, hurrenez hurren).

Taldeak Abadiñon du bere egoitza (TTM Motos-en Duran-



Mañariko lehiatik indartuta irten da Montenegro

Mañariko txirrindularitza lehiatan batutako puntuekin gertu du Euskaldun Torneoa

Joan zen asteburuan Mañariko jaien barruan antolatutako txirrindularitza lasterketatik indartuta irten zen Azysa Conor taldeko Jorge Martin Montenegro. Euskaldun Torneoko liderrak zazpigarren amaitu zuen, sailkapen nagusiko bere arerio arriskutsuenen aurretik. Ondorioz, lehendik ere esanguratsua zen aldea areagotzea lortu

zuen. Euskaldun Torneoa amaitzeko sei lasterketa falta direnean, 76 puntu ateratzen dizkio Pablo Torres bigarrenari eta 79 puntu Paul Kneppers-i. Lasterketa bakoitzeko irabazleak 25 puntu batzen dituela kontuan hartuta, Montenegro txapelketa irabazteko hautagai nagusia da.

Murgoitio zazpigarren

Mañariko lasterketa Caja Rural taldeko Karol Domalgaskik irabazi zuen. Cespa Euskadi taldeko Unai Elorriaga izan zen Durangaldeko lehenengo sailkatua 21. postuan. Sailkapen nagusian, aldiz, Hirumet taldeko Egoitz Murgoitio abadiñarra da eskualdeko ordezkari onena, zazpigarren tokian; Cafés Baqué taldeko Mikel Filgueira hamargarren dago.

Euskaldun Torneoko hurrengo lasterketa domekan honetan jokatu dute Gipuzkoan, Zegaman. ■ J.D.

Sei lasterketaren faltan, 76 puntuko aldea dauka bigarrenarekiko

Egoitz Murgoitio zazpigarren dago sailkapen nagusian

Ormaetxea podiumera igo da triatloian

Mugarra triatloi taldeko Iskan dar Ormaetxeak hirugarren amaitu zuen bere kategorian (V1) Extremadurako Barcarrota herrian jokaturako lasterketan. Podiumeko lehenengo postu biak Pacense taldeko Diego Yebra eta Santiago Sánchezek bete zituzten. Ormaetxea Yebra irabazlearengandik 4 minutu eta erdira helmugaratu zen.

Irabazlearengandik lau minutu eta erdira helmugaratu zen

Bestalde, Mugarra triatloi eskolan izena emateko epea oraindik zabalik dago. Triatloi taldeko www.mugarratt.com webgunean aurkitu daitezke 2011/12 denboraldiari begira prestatu dituzten jarduerak. Benjamin, kimu, haur-kategoria, kadete eta gazte mailetan eman daiteke izena. ■ J.D.

Igoera helburu, Berriz hasi da liga prestatzen

Iaz ohorezko mailatik jaitsi ondoren, aspaldiko partez goren mailan jokatu du Berrizek. Joan zen astean hasi zuten aurre-denboraldia, eta datorren eguaztenean lagunarteko partida jokatu dute, etxean, Soraluzeren kontra. Irailaren 7an, Eibartarrak taldea hartuko dute Berrizburun. Aurkari biek Gipuzkoako goren mailan jokatzeko dute.

Irailaren 18an jokatu du goren mailako lehenengo jardunaldia, eta Berriz taldeaz gainera lurretako eta Zaldua ere lehiatu dira. Zaldibarko taldeak Begoñaren aurka jokatu du etxean; Berriz eta lurretakok etxetik kanpora hasiko dute denboraldia, Loiu eta Basurtoren aurka. ■ J.D.

Datorren eguaztenean Soraluzeren kontra jokatu dute etxean

URTXINTXA

HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK
Aukera ezazu hemen zure erregalua

Andra Mari kalea, 9 DURANGO

Tel.: 94 681 50 17

"BODEGUILLA"



TRANA-MATIENA
Tfnoa. 94 681 43 85



Kalebarria, 2/g - 48200 DURANGO
Tel.: 94 620 18 93 - Fax: 94 681 64 03

Hemen agertu gura baduzu deitu!



94 621 79 02

OSASUN GIDA



FISIOTERAPIA

Zainduz

FISIOTERAPIA OSTEOPATIA

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea, behe-eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO

tf. 94 465 71 32
mug. 686 906 374

ODONTOLOGIA




B. UNAMUNZAGA E. ETXEBARRIA

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK

Murueta Torre, 2- C behea
48200 DURANGO
tf: 94 681 99 51

PODOLOGIA



JON GERRIKAETXEBARRIA PEÑA

PODOLOGIA KONTSULTAK:
oinen gaitzak, ortopedia eta zirurgia

Ermodo, 2- 1. eskuma
48200 DURANGO

tf: 94 620 11 00



FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIOA

Erditze aurreko eta ostekoa, txisari
ezineustea, traumatologia, kirola, trafiko istripua,
drainatze linfatikoa(masektomia ondoren),...

Iturriza, 44 -behe ezk.
48240 BERRIZ

tf. 94 622 55 93

OPTIKA



ZENTRU OPTIKOA

Teknika aintzindariak, kontaktologia, haurren
ikusmena, ikusmen terapia, audiometria.
NAHIA ZABALA eta AITZIBER ZABALA

Arkaraz, 3
48240 BERRIZ

tf: 94 622 50 99



GOIATZ MURUA LETURIAGA

PODOLOGOA
Kiroprodia; Onikopatia; Alterazio
Dermatologikoak; Ibilkerako alterazioak

Monago Torre, 4- behea
48200 DURANGO

tf: 94 620 36 30



PABLO ZUBIZARRETA

FISIOTERAPIA
&
OSTEOPATIA

Muruetatorre, 2D
48200 DURANGO

tf: 94 655 00 49 / 695 784 963

KIROMASAJEA



KIROMASAJEA DIGITOPUNTURA

Komentu kalea 15
48200 DURANGO

tf. 94 620 00 52

PSIKOLOGIA



JON ARRUABARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa
- Eskola arazoak

Umeak - Nagusiak - Bikoteak

Francisco Ibarra, 6 Durango
jon@psikologo.biz www.psicologo.biz

tf: 94 603 32 46 - 629 245 728



HIRU FISIOTERAPIA

astelehenetik - ostiralera 08:00 - 21:00
larunbatak 09:00 - 13:00

Antso Estegiz, 4
48200 DURANGO

tf. 94 466 94 00

HEMEN AGERTU
GURA BADOZU,
DEITU:

94 621 79 02





Hondakinen Legea onartu dute, Europako araudietara egokituta

**Etxeetako hondakinen % 50
birziklatzeko helburua ipini du
legeak; gaur egun edukiontzien
% 30 birziklatzen dugu**

**Ekologistek salatu dute legeak
ez duela hondakin organikoen
gaineko helbururik eta ez
duela errausketa baztertzen**

**Neurrien artean, plastikozko poltsak 2018an debekatzea
eta ontzi hutsak itzultzeko sistema aztertzea daude**

Dendetako plastikozko poltsak geroago eta gutxiago ikusten ditugu kaleetan. Apurka-apurka desagertzen joan beharko dute, onartu berri duten Hondakinen Legean 2018an erabilera bakarreko poltsak debekatzea dago eta aurreikusita.

Hondakinen eta Lur Kutsatuen Legea uztailaren 14an onartu du Espainiako Kongresuak. 2018rako hainbat helburu ipini ditu lege horrek: urte horretarako etxebizitzetako hondakinen % 50 birziklatzea eta erakuntza arloko hondakinen kasuan, % 70; gaur egun, erakuntzan % 38 birziklatzen da.

Edukiontziak bueltatzea

Lege berriagaz, edukiontziak itzultzeko sistema ipintzeko aukerak aztertuko dituzte. Lehenago egiten zen antzera, latak

edo plastikozko botilak erosteko, zerga bat ordainduko litzateke sistema horregaz, eta edukiontzia bueltatzerakoan diru kopuru hori bueltatuko litzateke.

Datuek diotenez, gaur egun edukiontzien % 30 eramaten dugu kontenedore horira. Europako hainbat lekutan martxan ipini dute ontziak bueltatzeko sistema, eta Alemanian, esaterako, edukiontzien % 90 baino gehiago errekuperatu dute.

Europar birziklatzea

Bertako birziklatze enpresei beharra emateko asmotan, lege berriak dio lehentasuna edukiko duela Europar birziklatzeak. Izan ere, gaur egun birziklatzera botatako hondakin asko Europatik kanpoko enpresetara bideratzen da.

Paperaren eta kartoiaren kasuan, adibidez, ekoizleen Aspapel elkarteak azaldu du azken bost urteetan Espainiatik paper erabili ugari (200.000 eta 900.000 tona artean) bidali dela Asiarara –batez ere, Txinara– bertan birziklatzeko.

Talde ekologisten iritzia

Elkarte ekologistek legearen alderdi ugari ontzat hartu dituzte, baina, orokorrean, adostutako neurriak nahikoak ez direla adierazi dute. Amigos de la Tierra, Greenpeace eta Ecologistas en Acción taldeek, esaterako, hainbat arlo landu barik geratu direla uste dute. Esaterako, salatu dute legeak material organikoaren inguruko helbururik ez duela aurreikusi. Hondakinen errausketa ez duela baztertzen ere kritikatu dute.

INMOBILIARIAS >



AMBOTO
INMOBILIARIA

San Agustinalde, 4 - 1 ezk • 48200 DURANGO
Tel.: 94 681 35 62 • iamboto@euskalnet.net

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO

- ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, egongela, eskegitokia eta 2 komun. 2 balkoi. Ganbara eta garajea. Zatoz ikustera.
- HERRIKO GUDARIEN: 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela balkoiarekin. Ganbara eta garajea. PREZIO ZORAGARRIA.
- Apartamentu berriak eraikitzen. 700 hilero. EZ GALDU AUKERA HAU.
- ERDIALDEA: AZKENEKO APARTAMENTUA. Logela bat edo bikoak, sukalde jantzia, komuna eta horma-armairuak. Edo nahiago baduzu alokatzen dizugu.
- ERDIALDEAN: 123 m². Etxe osoak kanpora ematen du. Berriztatuko. Zonalde onean kokatua.
- PLATERUEN PLAZA: 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela. Ganbara eta garajea.
- ZEHARKALEA: Atikoa. Guztiz berriztatua. 2 logela, sukaldea, egongela - jangela eta komuna.
- ANDRA MARI: 110 m². 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Leku onean.
- ASKATASUN ETORBIDEA: Eraikuntza berriak. 2, 3 eta logela bakarrekoak. Durango erdialdean.
- BARRENKALE: AZKENEKO DUPLEXA. Eraiki berriak. Berehalako banaketa.
- Taberna salgai. 100 2. Instalazio guztiekin. Prezioa negoziagarria da.

BERRIZ

- Logela, sukalde "amerikarra", egongela eta komuna. Berria estreintzeko. 96.000€.

ABADIÑO

- 2 logela, 2 komun, sukalde-jangela, egongela eta eskegitokia. Garajea, trastelekua eta ganbara. Zoragarria.

ATXONDO

- 2 logela, komuna, sukaldea balkoiarekin, egongela eta bainugela. Etxe osoak kanpora ematen du. Berria ematen du.

ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztatua. Trastelekua.

TXALETAK-BASERRIAK SALGAI

URRUTXUA

- Baserría, 8 hektareako lursailarekin. Gernika, Durango eta Bizkaiko Balkoiarekin ondo komunikatuta. Prezioa adosteko prest.

DIMA

- Baserría salgai. 4.000 m²-ko lursaila. Balzolakobetatik gertu.
- Baserría salgai. Hektarea bateko lursaila. Indusi zonaldean.

MALLABIA

- TRABAKUA: Baserría. 140m² solairuko. 20.000 m²-ko lursaila. Durangotik 10 minutura.

OTXANDIO

- Guztiz berriztuta dagoen baserría. 3 solairu, sukaldea, egongela - jangela, 2 komun, 3 logela, egongela eta atikoa.

ABADIÑO

- MENDIOLA. Bifamiliarra. Eraiki berria. Estreintzeko. Informazio pertsonalizatua.
- Bifamiliarra. 4 logela eta 3 komun. Garajea, trastelekua - txokoa. Lorategia barbakoiarekin. Leku onean kokatua.

GARAI

- Adosatua salgai. Estreintzeko. Leku ezin hobean kokatua.

LUR SAILAK SALGAI

OROBOS

- 4.200 m²-ko lursaila. Guztiz laua.

IURRETA

- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.



Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA

Barrenkalea 15, behe • Tel./Fax: 94 681 64 23
48200 DURANGO • Bizkaia

ETXEBIZITZAK SALGAI

- ATXONDO: Adosatua lursailarekin salgai.
 - ABADIÑO: Txalet bifamiliarra lursailarekin salgai.
 - DURANGO-ERRENTXU: Salgai. Adosatua eraikitzen.
 - BERNAGOITIA: Zornotza. Unifamiliarra lursailarekin.
 - OTXANDIO: Adosatua. Eraikuntza berriak.
- ### ETXEBIZITZAK SALGAI
- ANDRA MARI: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 3/4 logela, 2 komun eta egongelatxo.
 - ANDRA MARI: Halla, egongela, egongelatxo, sukaldea, jangela, 5 logela, 3 komun.
 - ANTSO EZTEGIZ: Halla, egongela, sukaldea, 2 logela eta komuna.
 - ANTSO EZTEGIZ: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Guztiz berriztatua. Estreintzeko.
 - ARAMOTZ: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia.
 - ASTOLA BIDEA: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna. Balkoia.
 - BERNARDO GABIOLA: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna. Guztiz berriztatua.
 - BERNARDO GABIOLA: Halla, sukaldea, egongela, 3 logela, komuna eta despentsa.
 - ERROTARITXUENA: Estreintzeko. Halla, sukalde jantzia, logela bakarra edo 2 logela, egongela, 2 komun eta eskegitokia. Terraza. Garajea aukeran.
 - GALLANDA: Estreintzeko. Halla, sukaldea, egongela, logela bakarra edo 3 logela, komun bakarra edo 2 komun eta balkoia. Ganbara eta garajea.
 - GALLANDA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Terraza. Garajea eta trastelekua.
 - EZKURDI: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 / 4 logela eta 2 komun.
 - F.J. de ZUMARRAGA: Halla, 2 egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna.
 - F.J. de ZUMARRAGA: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia.
 - GASTEIZ BIDEA: Halla, egongela, 3 logela, sukaldea eta komuna. Despentsa eta balkoia. Garajea aukeran.
 - INTXAURRONGO: Halla, egongela, sukaldea, logela eta komuna. Trastelekua.
 - IPARRAGIRRE: Duplexa. Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela, 2 komun eta terraza. 2 kotxerentzako garajea eta trastelekua.
 - JUAN DE ITZIAR: Halla, egongela, sukaldea, 2/3 edo 4 logela eta komuna. 2 despentsa/trasteleku eta sotoa.
 - KALEBARRIA: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Despentsa. (Guztiz berriztuta).
 - KALEBARRIA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 2 logela eta komuna. (Guztiz berriztuta).
 - KOMENTU KALEA: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 2 logela horma-armairuekin eta komuna. Ganbara. (Guztiz berriztuta eta erdi jantzia).
 - KOMENTU KALEA: Halla, sukaldea, egongela-jantokia, 4 logela eta komuna. Ganbara.
 - KURUTZIAGA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta komuna. Despentsa handia. Ganbara.
 - LAUBIDETA: Halla, sukalde-jantokia, egongela, 2 logela eta komuna. Terraza.
 - MARTXOAREN 8^a: Halla, sukaldea, 2 logela, egongela eta 2 komun. Terraza handia.
 - MONTEBIDE: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 5 logela eta 3 komun. Terraza. Ganbara. 150 m².
 - PLATERUEN PLAZA: Halla, egongela, jangela, sukalde jantzia, 4 logela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
 - SAN IGNAZIO: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta komun bakarra edo 2 komun. Balkoia. Garajea aukeran eta trastelekua.
 - SAN FAUSTO: Halla, sukalde-jangela, 2 logela eta komuna.
 - SASIKOA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea.
 - TABIRA: Halla, egongela-jangela, logela, komuna eta eskegitokia.
 - TXIBITENA: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia eskegitokiarekin, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Erdi jantzia. Ikuspegiarekin.
 - UNDA-TORRE: Halla, sukaldea, 3 logela, egongela eta komuna.
 - URKO KALEA: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 2 logela eta 2 komun. 2 terraza. Ganbara eta garajea.



Inmobiliaria del Duranguesado

Askatasun etorbidea, 10 • 48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 681 66 66
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

- MARTXOAREN 8KO: Estreintzeko dauden azkeneko 2 etxebizitza, beherapen handiagaz obrak likidatzeko. 2 eta 3 logela. Garajea itxia.
- EZKURDI: Viviendas de Vizcaya. 3 logela. Hainbat orientazio eta gainazal. Azkeneko etxebizitzak salgai. 301.980€ (+BEZ). Garajea eta ganbara
- ASKATASUN ETORBIDEA: Promozio berriak. 1,2,3 eta 4 logelakoak.
 - Logela bakarra garajea eta ganbararekin 185.000€ + BEZ
 - 2 logela garajea eta ganbararekin 233.000€ + BEZ
 - 3 logela garajea eta ganbararekin 350.000€ + BEZ
- ASKATASUN ETORBIDEA: 115 m². 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Garajea eta ganbara.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 74 m². EZINHOBEA. ETXE OSOAK KANPORA EMATEN DU. 2 logela. Garajea.
- ERROTARITXUENA: Estreintzeko. 2 logelako atikoa, egongela, sukalde jantzia, 2 komun. 20 m²-ko 2 terraza. Garajea itxia.
- ZUMALAKARREGI-EZKURDI: 130 m². 4 logela. Garajea. Handia. Orientazio ona.
- EZKURDI: 100 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Ganbara. Prezio ona.
- EZKURDI: 4 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Balkoia.
- TABIRA: 90 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Eguzkitsua eta ikuspegi ederrekoa.
- TABIRA: Erdi berria. Logela, egongela, sukaldea eta komuna. Garajea. Polita.
- MURUETA TORRE: 120 m². 4 logela. Garajea eta trastelekua. Balkoia.
- MIKELDI: 101 m². 3 logela, egongela handia, sukalde jantzia, komuna eta bainugela. Guztiz berriztatua.
- FRANTZISKO IBARRA: 95 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
- FRANTZISKO IBARRA: 105 m². 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. Garajea aukeran.
- SAN IGNAZIO: 104 m². 3 logela. Garajea eta ganbara. Erdi berria. Altuera ona. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.
- SASIKOA: 85 m². 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Garajea eta ganbara. Balkoia. Ikuspegi politak. Eguzkitsua.
- SASIKOA: 70 m². Aukerakoa! 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia.
- ARKOTZA: 4 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. Balkoia. Ganbara.
- FRAY JUAN DE ZUMARRAGA: 108 m². 4 logela. Altuera ona. Garaje itxia aukeran.
- MENDIZABAL: 63 m². 2 logela. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. Ganbara.
- ALLUITZ-FRAY JUAN DE ZUMARRAGA: 50 m². Erdi berria. Logela bakarra. Garaje itxia.
- TXIBITENA: Erdi berria. Logela bakarra. Ganbaran beste logela bat. Garajea.
- TXIBITENA: 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Garajea eta ganbara.
- FRAY JUAN DE ZUMARRAGA: Apartamentu polita. 50 m². Logela bakarra. Erdi berria.
- JUAN DE ITZIAR: 4 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Bizitzen sartzeko moduan.
- SAN FRANZISKO: 75 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta komun. 2 balkoi. IKUSPEGI POLITAK.
- ZEHARKALEA: 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Igogailua.
- KOMENTU KALEA: Logela bakarreko apartamentua. Bizitzen sartzeko moduan. Guztiz berriztatua.
- EUBA: Unifamiliarra eraikitzeko lursaila salgai. 2.650 m² guztiz laua.
- SAN FAUSTO: Guztiz berriztatua dauden etxebizitzak, bizitzen sartzeko moduan. 2 eta 3 logela. Prezio onak.
- BARANDIARAN: 90 m²-ko bulegoa salgai. Prezio interesgarria.
- MADALENA: Trastelekuak salgai. Gainazal ezberdinak.
- MADALENA: Garaje itxia salgai.
- DURANGALDEA: Baserría, adosatua, familia bakarrekoak eta bifamiliarrak. Pabilioiak eta garajeak salgai eta alokagai. Hainbat zonalde.



ETXETXO
G. INMOBILIARIA

F.J. Zumarraga, 11
Tel.: 94 681 40 49 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

ERAIKUNTZA BERRIA

- IBAIZABAL: 1. fasea. 3 logela eta 2 komun. Terrazak. Garajea eta trastelekua. 247.000€-tik aurrera.

ETXEBIZITZAK SALGAI

- BIXENTE KAPANAGA: Etxebizitza altua. 90 m². 3 logela, egongela handia, sukaldea eta komunak berriztatua. 231.400€.
- BIDEBARRIETA (Postetxea). 3 logela, egongela eta sukaldea. Igogailua. Ganbara. 232.000€.
- DANTZARI: 3 logela. 192.000€.
- ARAMOTZ: 3 logela. 165.000€.
- MURUETA TORRE: 3 logela. Terraza handia. Ganbara eta garajea. SALTZEKO PREMIA!
- ASKATASUN ETORBIDEA: 90 m². 3 logela eta 2 komun. Terraza. Eguzkitsua. Ganbara. 2 kotxerentzako garajea. 297.500€.
- ERRENTXU: 75 m². Sukalde eta egongela handia. Garajea.
- URKO (Landako): 2 logela eta 2 komun. Eskegitokia. Terraza. Ganbara. Garajea eta trastelekua.
- SAN IGNAZIO: 80 m²-ko terraza duen atikoa. Salgai edo alokairuan erosteko aukerarekin.
- ERDIALDEAN: 102 m². 4 logela. Zonalde lasaia. Etxe osoak kanpora ematen du. 192.300€.
- TRENBIDE: 105 m². 2 garaje, trastelekua eta ganbara. Etxe osoak kanpora ematen du.
- F.J. de ZUMARRAGA: DUPLEXA. 2 logela, 2 komun eta egongela. Terraza. EGUZKITSUA.
- IURRETA (MASPE): ERAIKUNTZA BERRIA. 1,2,3 eta 4 logelako etxebizitzak. 210.500€-tik aurrera.
- DURANGO: ETXEBIZITZAK TERRAZEKIN. 1,2,3 eta 4 logelako etxebizitzak. Ganbara eta garajea.
- ABADIÑO: Berehalako banaketa. 2 eta 3 logela. 30 m²-ko terraza. Garajea eta trastelekua. Sukalde jantzia. 265.000€-tik aurrera.
- MAÑARIA: 110 m². 3 logela eta egongela handia. Terraza. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.
- OÑITURRI (Ezkurdi). Erdi berria. 80 m². Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. Lehen mailako materialak. Ganbara eta garajea.
- ALLUITZ: Erdi berria. 2 logela. Ganbara eta garajea.
- PLATERUEN PLAZA: 4 logela eta 3 komun. Trastelekua eta garajea. 294.500€.
- HERRIKO GUDARIEN: (EZKURDI): AZKENEKO etxebizitza. 3 logela, eta 2 komun. Terraza. Ganbara eta garajea.
- EZKURDI: 70 m². 180.000€.
- SASIKOA: Erdi berria. 90 m². 3 logela eta eskegitokia. Balkoia. 52 m²-ko terraza. Eguzkitsua.
- ASTXIKI: 115 m². 3 logela. Garajea eta ganbara.
- FRANTZISKO IBARRA: 100 m². 3 logela eta egongela handia. Ganbara eta garajea.
- ANBOTO: 3 logela, egongela eta komuna.
- ARTEKALE: Berria. 80 m². 2 logela. Polita.
- MADALENA: 2 logelako atikoa. Terraza.
- ANDRA MARI: Apartamentua. 162.000€.
- TABIRA: Apartamentua. Garajea. 237.400€.
- LANDAKO: 90 m². 3 logela eta 2 komun. 2 terraza. Ganbara eta garajea. Polita.
- SAN FAUSTO: 1^o solairua. 3 logela. 150.000€.
- KIRIKIÑO: 60 m². 3 logela. 138.500€.
- ASKATASUN ETORBIDEA: 2 logela eta egongela. Terraza. Ganbara eta garajea bikoitza.
- DURANGO: Txaleta. 400 m². Garajea. Lorategia.
- DURANGO: Txaleta. 5 logela eta 3 komun. Txokoa. 2 kotxerentzako garajea. 45 m²-ko lorategia. 637.600€

ABADIÑO-MATIENA

- FERIALEKU: 90 m². 3 logela eta egongela. Ganbara. Ikuspegiarekin. 171.300€ Garajea.
- ABADIÑO: Txaleta. 310 m². Bifamiliarra. 3 solairu. 350 m²-ko lorategia eta txokoa. 3 kotxerentzako garajea.
- MATIENA: Solaguren kalea. 3 logela eta egongela. Bizitzen sartzeko moduan. Berria. 150.250€.

ALOKAIRUAN

- MATIENA: Pabilioia. 163 m². 950€.
- TABERNA - JATETXEA: 150 m². 900€/hileko.
- IBAIZABAL: 120 m². 2 kale hartzen dituen erakuslehoia.
- MARISTAK: 60 m². Egokitua. Alokairuan edo salgai.

AGENDA >

> ANBOTOKo agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Abuztuaren 26, 27 eta 28an, Elorri

SAN AGUSTIN AUZOKO JAIK

Gaur arratsaldean txopoa altxatuta, jai giroan igaroko dute Elorrioko San Agustin auzoan asteburua. Trikitilarien emanaldiagaz eta afari batezaz ekingo diote asteburuari gaur, eta ondorengo egunetan umeentzako jolasak, kontzertuak, lehiaketak eta beste hainbat ekitaldi izango dira bertaraten direnen gozagarri.

J.U.

BISITA GIDATUA

DURANGO

>> **Abuztuaren 27an, Durangoko Turismo Bulegoak** abuztuko zapatuetarako antolatutako Erdi Aroko Durango eta Kuruzesantuari buruzko bisita gidatua egiteko azkeneko aukera, 12:00etan. Informazioa eta erreserbak egiteko aukera, Lariz Torreko Durangoko Turismo Bulegoan.

ERAKUSKETA

DURANGO

>> **Abuztuaren eta irailean, Hiru artista gazte Art Lekun** margo erakusketa, Zeharkaleko Art Leku aretoan.

ERAKUSTALDIA

IURRETA

>> **Irailaren 3an, Harria herri-kirol**

elkarrekin antolatutako **herri kirol erakustaldia**, 22:00etan, Probalekuan. Sarrera doan.

IKASTAROA

BERRIZ

>> **Irailaren 22ra arte** eman daiteke izena udalak antolatutako **euskara ikastarorako**.

ELORRIO

>> **Urritik ekinera, dantza ikastaroak** Iturri kultur etxean. Sabel dantza eta koreografia modernoak. Doako proba egunak, irailaren 21ean eta 24an, hurrenez hurren.

JAIK

ELORRIO (San Agustingo jaiak)

- >> **Abuztuaren 26an**, 18:00etan, **txopoa jasotzea**. 18:30etan, **trikitilariak**, eta ondoren, **auzo afaria**.
- >> **Abuztuaren 27an**, 10:30ean **mendiko irteera** Artiabasora (380 m). 18:00etan, **Euskadiko laguntza txakurren taldearen erakustaldia**. 19:30-20:30, **Dj. Xaibor** umeentzat. 22:00etan, **Txabolakumeak** taldearen kontzertua. 23:00etan, **Dj. Xaibor**.
- >> **Abuztuaren 28an**, (San Agustin eguna). 11:30ean, **meza**. 13:00etan, **Betsaide dantza taldea**. 14:30ean, **auzo bazkaria**. 17:00etan, **mus txapelketa** Elorrio Hotelean. 17:00etan, **umeentzako jolasak, tailerrak...** 18:30ean, **Nörk magoaren emanaldia**. 20:00-21:00, eta 22:30ean, **erromeria Luhartz** taldeagaz.

IZURTZA

>> **Irailaren 2an**, 16:00etan, **frontenis txapelketa**. 20:00etan, **txupinazoa eta trikitipoteo herrikoa**. 22:30ean, kontzertuak Gaztelekuan.

MALLABIA (Zengoiteko jaiak)

- >> **Abuztuaren 27an**, 20:00etan, **txopoa altxatzea**. 21:00etan, **auzotarrentzako afari-merienda**.
- >> **Abuztuaren 28an**, 11:30ean, **meza nagusia**. 12:35ean, Berrizko **San Lorenzo dantzari taldearen emanaldia** eta ondoren **omenaldia**. 13:00etan, **aintzinako lanen erakustaldiak** (gazta egitea, artilea lantzea, ardiei ilea moztea). Giroa alaitzen, **Xabier Amuriza eta Beñat Ugartetxea** bertsolariak. 14:30ean, **gonbidatuentzat bazkaria**. 17:30ean, **bolo txapelketa nagusia**. 18:00etan, **umeen jolasak, puzgarriak, eta txokolatada**.
- >> **Abuztuaren 29an**, 12:00etan, **auzoko hildakoen meza**. 13:00etan, **bolo txapelketa**. 17:45ean, **asto probak**, eta ondoren, **Lumagorri oilasko erre jana** eta jaien amaiera alaitzeko **Elizalde trikitilaria**. 20:00etan, **Karretilaren zozketa**.

LEHIAKETA

IURRETA

>> **Urriaren 30era arte** aurkeztu daitezke egitasmoak **Iurretako Udaleko Enpresa Proiektuen lehiaketara**: produktu, prozesu edo zerbitzuen arloko ideien lehiaketaren saria 9.000 eurokoa izango da. Informazio gehiago: 94-623 25 22

MENDIA

OTXANDIO

>> **Irailaren 8ra arte** eman daiteke irailaren 10ean burutuko duten **VII. Mendi Bizikleta Martxan** parte hartzeko izena. Udalaren webgunean eman daiteke izena.

MUSIKA

ELORRIO

>> **Irailaren 2an, Zea Mays** eta **Gose** taldeen kontzertuak, 23:00etan, Elorriko jaietako txosnagunean. 00:00etan, **Elektrominimal Friday**, Gaztetxean.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza

Conan 3D

Zuzendaria: Marcus Nispel
barikua 26: 19:00
zapatua 27: 17:00/19:30
domeka 28: 17:00
astelehena 29: 19:00
martitzena 30 (ikuslearen eguna): 18:00



Arriya

(la piedra)

Zuzendaria: Alberto Gorritiberea
barikua 26: 22:00
zapatua 27: 22:30
domeka 28: 19:30/22:30
astelehena 29: 22:00
martitzena 30 (ikuslearen eguna): 20:30



Irailaren 2an, 23:00etan, Elorrioko Txosnagunean

GOSE + ZEA MAYS

Elorrioko Ferixa Nagusiko jaien lehenengo egunean, irailaren 2an, izango dira Gose eta Zea Mays taldeak entzungai. Datorren barikuan, 23:00etatik aurrera, Txosnagunean eskainiko dute zuzeneko. Jaien lehenengo egunean, Gaztetxean, Elektrominimal Friday saioa izango da 00:00etan hasita.

2012ko egutegiaren argazki lehiaketa hartu egizu parte!
Oinarriak: **anboto.org**



12 hile 12 herri

anboto komunikabideak >



DENBORAPASAK

ZORION AGURRAK >

zorionak@anboto.org • Bixente Kapanaga 9, 48215 Iurreta

* IZENA	Emakume izena	Kanpotik etortia	* DEITURA	Den, hari
Arrantza tresna	Ukimendu			
Kanonen araberako	Jasan			
Bibliako pertsonaia		Ohorezko hitz emate		
Jateko gai gozo		Pl., potasio hidroxidoa		
				Koadernoia
Alabaren alabak				
Tuberkulu mota				
				Bokala
				Ur ontzi mota
Rutenioa		Pozik		
Kontso. bustia		Euskal sindikatua		
		... baterako, adibidez		
		Iridioa		
Hegazti mota				
Haragitarako aberea				



Iurretako bikote honek urteak bete zituen. **Iratik** uztailearen 24an 7 urte eta **Oroitze** 26an 3. Zorionak eta musu potolo bana etxekoan partez!



Aezkoako udalekueetatik etorri ondoren **June Ereñagaren** 10. urtebetetzea ospatu genuen abuztuaren 11n. Zorionak aita, ama, amama eta familiaren partez!



Pasa den abuztuaren 15ean gure printzesa **Naroak** 7 urte bete zituen. Zorionak eta musu potolo bat etxeko guztien partez!



Zorionak **Maier!** Uztailearen 21ean 2 urtetxo bete zituen gure etxeko neskatila zoragarriak! Musu bat maite zaitugun guztien partez



Neiek uztailearen 24an 12 urte bete zituen. Musu bat etxekoan partez, batez ere Naroa, Iraia, Kaiet eta Akoxen partez!



Abadiñoako **Unaxek** uztailearen 29an 5 urte bete zituen. Zorionak eta musu handi bat etxekoan partez!



Asier Vallejok 2 urte egin zituen uztailearen 27an. Musu handi bat! Aitita Jose, amama Estrella, osaba Aitor eta amama Agustina.

AZOKA-BASERRITIK PLAZARA >



Abadiño (Traña-Matiena) - Eguaztenetan 10:00etatik aurrera
Durango - Zapatu goizetan
Zornotza - Domeka goizetan

ASTEKO SALNEURRIAK:

Tomateak..... 3 euro/kg	Remolatxa..... 1,20 euro/tx
Piperrak..... 1 euro/dozena	Kalabazina..... 1,80 euro/kg
Piper handia.... 3,50 euro/kg	Arrautzak..... 3,60 e/dozena
Ibarrako gindillak. 8 euro/kg	Idiazabal gazta....16,50 e/kg
Bainak..... 4 euro/kg	Ogi zuria..... 2,90 euro
Azelgak..... 1,80 euro/kg	

3			2
6	7		1
		7	8
		4	5
			9
7		2	5
4	2	7	8
3	4		2
		1	3
		5	7
			9



Uztailearen 24an, argazkiko bikote honek 35 urte egin zituen elkarrekin ezkontuta. Zorionak eta musu handi bat zuen alaben partez!



Hamabostero, jasotako zorion-agur guztien artean tarta bat zotz egingo dugu. Horretarako beharrezkoa da bialdutako mezuagaz batera telefono zenbakia ematea.

BOTIKAK >

- Barikua, 26**
 09:00-09:00
 • Navarro (Artekale 6 - Durango)
 09:00-22:00
 • Larrañaga-Balentiaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)
Zapatua, 27
 09:00-09:00
 • Sagastizabal (Askatasun Et. 19 - Durango)
 09:00-13:30
 • SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
 • Larrañaga-Balentiaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)
 • Lope de Aretxaga (Torresolo, nº 4 - Abadiño)
Domeka, 28
 09:00-09:00
 • Unamunzaga (Muruet Torre 2C - Durango)
Astelehena, 29
 09:00-09:00
 • Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
 09:00-22:00
 • Urizar (Gabiola 2 - Berriz)
Martitena, 30
 09:00-09:00
 • Mugica (Andra Mari 9 - Durango)
Eguaztena, 31
 09:00-09:00
 • Navarro (Artekale 6 - Durango)
 09:00-22:00
 • Larrañaga-Balentiaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)
Eguena, 1
 09:00-09:00
 • Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)

TELEFONO INTERESGARRIAK >

- SOS Deiak.....112**
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza94 600 72 00
Ertzaintza94 466 93 00
Suhiltzaileak112
- GARRAIOAK**
 Euskotren902 54 32 10
 Bizkaibus94 448 40 80
 Pesa902 10 12 10
 Continental Auto945 286 466
- TAXIAK**
 Abadiño946 814 470
 Matiena606 459 988
 Durango Geltokia....946 811 001
 Elorrio Geltokia946 820 040
 J.L. Uriarte670 402 002
 I. Estebez670 678 273
 M Galeano.....946 582 854
 Iurreta946 201 565
 Taxi auzunea688 618 690
- UDALAK**
 Abadiño94 621 55 30
 Atxondo94 682 10 09
 Berriz94 682 45 84
 Durango94 603 00 00
- Elorrio94 658 27 12
 Garai94 681 63 93
 Iurreta94 620 12 00
 Izurtza94 681 35 48
 Mallabia943 17 14 61
 Mañaria94 681 89 98
 Otxandio945 45 00 20
 Zaldibar94 682 70 16
- UDALTAINGOA**
 Abadiño94 621 55 33
 Berriz94 682 40 36
 Durango94 603 00 10
 Elorrio94 682 02 18
 Iurreta94 620 08 88
- EGURALDIA >**
- 10 **23º BARIKUA** ☁
 11 **22º ZAPATUA** ☁
 11 **25º DOMEKA** ☁
 14 **22º ASTELEHENA** ☁
 13 **22º MARTITZENA** ☁

- ARIES** (martxoak 21 - apirilak 20)
 Eguraldiaren antzera, zure sentimenduak ere aldatu dabilta. Barne gogoeta egin behar duzu.
- TAURUS** (apirilak 21 - maiatzak 20)
 Sarritan esan dizute gorputzaren kargu egiteko, baina ez duzu kasurik egiten. Gaixotuko zara!
- GEMINI** (maiatzak 21 - ekainak 20)
 Datorren astean zorte ona izango duzula diote izarrak. Beraz, aprobetxatu kiniela botatzeko.
- CANCER** (ekainak 21 - uztaileak 20)
 Abuztua izan arren, lanez lepo zabilta. Lasai, laster etorriko dira lan gutxiagoko asteak ere.
- LEO** (uztaileak 21 - abuztuak 23)
 Egun batean hondartzara eta hurrengoan mendira. Horrelaxe eman dituzu oporrak.
- VIRGO** (abuztuak 24 - irailak 23)
 Aspaldian oso denbora gutxi ematen duzu lagunekin. Telefonoa hartu eta deitu egin behar zenieke.
- LIBRA** (irailak 24 - urriak 23)
 Kosta egiten zaizu erabakiak hartzea. Ausardia handiagoagaz jokatu behar zenuke.
- SCORPIUS** (urriak 24 - azaroak 23)
 Borondate ona duzunik ez dizu inork ukatzen, baina sarritan hori ez da nahikoa izaten.
- SAGITARIUS** (azaroak 24 - abenduak 23)
 Inbidia diozu, inbidia handia. Zure ametsa berak bete du. Ez etsi, zuk ere lortu zenezake.
- CAPRICORNUS** (abenduak 24 - urtarrilak 20)
 Gauetan kosta egiten zaizu lo hartzea. Arazoei buelta asko ematen dizkiezu ohean.
- AQUARIUS** (urtarrilak 21 - otsailak 21)
 Sekretu handi bat kontatu dizute, jende askori eragiten diona. Kontatu edo ez kontatu zalantza duzu.
- PISCIS** (otsailak 22 - martiak 20)
 Pertsona sentiberenak ez dira beti zentzuzkoenak izaten. Pentsatu ondo ezertan hasi aurretik.

Denborapasen SOLUZIOAK

4	6	1	7	3	5	8	2	9
9	8	3	1	2	5	7	6	4
5	7	2	9	8	6	4	1	3
3	1	9	6	7	8	2	5	4
8	5	4	1	2	9	3	6	7
7	6	3	5	3	9	6	8	1
6	3	9	8	9	7	4	1	2
1	4	1	7	8	6	3	7	9
2	6	2	4	5	1	6	3	8

V	I	V	K	V	R	V	H
R	O	G	V	7	I	O	•
E	T	V	S	E	•	D	D
I	V	7	V	•	U	R	•
V	•	V	T	V	T	V	P
K	V	B	O	7	I	B	•
•	N	V	P	V	Z	V	W
N	I	Z	•	T	O	7	•
O	K	I	N	O	N	V	K
I	R	I	Z	•	S	•	
V	O	R	V	•			
Z	T	V	7	O			
•	E	•	V	•			



Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.
Pintxoak.
Eguneko menua.
Menu bereziak.
Kartan, aukerako okelak txingarretan.



Betixu Jatetxea

Iturburu 9, Iurreta
Tel.: 94 681 78 47

Astelehenetan itxita. Aste bitartean menu berezia 16 euro, 18e/ardoa, 20e/kriantza. Afariak egunero astelehen eta igandeak ezik.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehen eta martitzen gauetan itxita.




Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik zapatara.
Taldeentzako menu adostuak.
Askariak.

Jatetxe gida



Jon Soloeta Huri-Barrena Jatetxea

Huribarrena 8, Otxandio
Tel.: 945 45 01 25

Karta. Ardoak.
Eguneko menua.
Asteburuetan menu berezia.



Errekondo Jatetxea

Andra Mari 1, Mañaria
Tel.: 94 681 85 77

Eguneko menua astelehenetik ostirelera.
Asteburuetan bazkariak eta afariak enkarguz.
Espezialitatea: Txuleta errea.



Hotel Lagunetxea

Urkiolako Santutegiaren ondoan
Tel.: 94 465 60 10

Eguneko menua.
Enpresa-bilerak.
Denetariko ospakizunak.
Askariak.

Hemen agertu gura badozu,

DEITU

94 621 79 02

"Kalean hara eta hona ibiltzea ere eskatzen du nire beharrak"

Pintore lanak denbora asko kendu arren, bere afizioetarako eta hartu-emanetarako tarte hartzen ahalegintzen dela esan digu Ibaik

Ez da geldirik egotekoa Ibai Urien abadiñarra. Pintore ofizioz, futbolari eta dantzazale afizioz. Lana edo aisialdia dela, hara eta hona ikusi dezakegu sarri, eta Anbotora ere hurre-ratu izan da brotxa eta guzti. Kasu honetan, solasalditxo egiteko aprobetxatu dugu. Beharrean serio ibili behar dela diosku.

Noiztik zabilta lan honetan?

17 urtegas hasi nintzen. Ikasle eskasa nintzen, eta Lanbide Prestakuntzarako Zentroan eman nuen izena. Pintura eta dekorazio-ko adarra gustatu zitzaidan batez ere, eta horrela hasi nintzen. Hor-tik irtenda, denbora batez enpresa batean egin nuen lan, eta gero neure kabuz aritzea erabaki nuen.

Batzuek esango dute lan erraza dela zurea...

Horrela ikusi daiteke, baina ez da, ezelan ere. Badauka bere misterioa: estaltzea, margoak prestatzea, zelan eman, material ugarien artean aukeratzeta... Gauza asko dira garrantzitsuak gure lanean.

Dekorazio tendentziak ere kontuan eduki beharko dituzu.

Gainera, tendentzia aldaketa asko ematen da etengabe. Bezeroek aldizkarietan ikusten dutena hartzen dute erreferentziatzat. Lehen kolore piloa erabiltzen zen, eta azkenaldian kolore neutroak agertu dira. Datorren urterako, altzarrietan koloreak etorriko dira berriz.

Zelakoa da zure lan eguna?

Orokorrean nahiko estresagarria. Beti aurpegia eman behar da. Sarritan jendeak kalekoz jantzita ikusten nau, eta galdetzen dit ea jai daukadan. Baina zer jai eta zer kristo! Agian gaueko 21:00etan nonbaitera joan beharko dut lanen bat ikustera edo zeozer egitera! Gainera, krisia dela-eta, jendeak gaur hasi eta amaitu gura izaten

du obra. Nik ez daukat ez ordutegirik, ezta oporrik ere; egun libreak lan gutxi dagoenean etortzen dira.

Hala ere, badakit denbora libre aprobetxatzeko zarela...

Azken sei urtetan areto-futboleko ibili naiz jokatzera. Abadiño, Beti Arin, Gernika eta Sasikoa taldeetatik pasatu naiz, atezain moduan jokatu. Aurten Sasikoagaz Nazionalean aritzea proposatu didate, baina ez dakit zer egingo dudan, hankako ebakuntza baten zain nago-eta.

Atezainak ere badu bere meritu, ala?

Bai, itzela gainera! Baloia aurrez aurre etortzen da, eta zartada apur bat ere eduki behar da, beldur barik jokatzeko (barrez).

Mendiolan jaiak antolatzen ibiltzen ei zara.

Nire arreba urte askoan egon da bertan beharrean, eta beti ibili izan naiz inguruan, laguntzen, Orain dela hiru urtetik hona, neu ere antolaketan sartuta nabil.

Bestela ere, kalean egoteko muti-la zara zu.

Jai-giroa gustatzen zait; odolean daramat, herentziaz. Baina zapatu baten irten eta ez badut dantza egiteko aukerarik edukitzen, niretzako ez da parranda ona. Kalean asko egoten naiz, eta ez Goienkalen gora eta behera bakarrik. Nire beharrak ere eskatzen du kalean hara eta hona ibiltzea, bezeroekin hartu-emanak lantzeko.

Dantzazalea zara, beraz?

Aurten Kriskitinen hasi naiz ikasten eta, hor nabil, ordu piloa sartzen. Eskertzekoa da irakasleen

ahalegina, zerotik hasi naiz-eta. Horregatik, jendea izena ematera gonbidatzen dut. Bestalde, Karibeko dantzak ere gogoko ditut (barrez), eta hiru hileko ikastaroa egin nuen. Orain, bariku gauetan Bilbora joaten gabiltza lagun bat eta biok, hango saio batzuetara. Salsa edo batxata dantzatzeko ditugu, adibidez. Zapatu gauetan praktikan ipintzea gustatzen zait, lagunekin berbetan-eta ondo pasatu arren, dantza barik ez delako gauza bera.

Batzuetan planak zapuztuko zaizkizu beharraren ondorioz, ezta?

Askotan. Saia-tzen naiz moldatzen, baina lana dalehentasunezkoa. Aurten, esaterako, Tourrera joan gura eta ezin izan dut.

Suposatzen dut beharreko anekdotarik izango duzula...

Anekdotak asko, eta jende bitxia ere ezagutu dut, orokorrean bezeroekin gustura egon arren. Leku kurioetan egon izan naiz; PPren Bilboko egoitzan kostatu zitzaidan sartzen. LABen afiliatuta nengoan, eta orain burusoila naizen arren sasoi hartan kristoren tximak neuzkan! Anasagastiren etxean izan naiz, besteak beste.



Juanito Gallastegi Abadea

Milioitik gora gazte

Pil-pilean dago oraindino Madrilgo lehengo asteko jazoera. Milioitik gora gazte, kristau-fedeak alkartuta. Ez ditut gogoko holako ikuskizun erraldoiak. Zaila egiten jat Jesusek gura eban gatza izatea horregaz lotzea. Fededuna izan, fedebakoa izan, alde askotatik emon leiteke jazoerari buruzko eritzia. Eleiztarren artean be ez dauko zertan izan eritzi bera.

Nire ustez, gauza baikorra eta pozgarria da, kristau ikuspegitik, hainbeste tokitako, hainbeste kulturetako, hainbeste izaeratako gaur-gaurko hainbeste gazte alaik, fede berak batuta, fede hori, harrokeria barik eta pozarren eta begirune osoz, danen aurrean autortzea.

Erromako gotzainak, aita santuak, hainbeste berbal-ditan esandakoak be, bai gazteontzat bai guztiontzat, onurakorrak eta betebeharrekoak gehienak: "kristau ez diran legebidezko aukerekin begirunezko alkarbizitza izan beharra", "beti baztertuena eta ezeukien alde jokatu eta euren ondoan izan beharra"...

Baita bidezkoak eta aintzat hartzekoak dira, nire ustez, eleiztar legez egin diran eta egin daitezkean kritika eta galdera asko be: haundikeria usaina, ikuskizun hutsa izatea, gizon baten protagonismo larregia... Edo herritar legez: zergatik, estatu akonfesionalean eleiz eta herri agintarien alkarregazko eskuhartzea? Pribilejio antza? Diru arloa, zer?... Zer esanik be ez, fedebako gehien-gehienek be, nahiz eta kritikoak izan, ez dituela onartzen gitxiengo batzuek jazoera horren aurka erabili ditueen demagogiak eta ahoberokeriak... Ez da gauza bera arrazoizko kritikea egitea eta iraintzea.

Jazoera erraldoi hori mundua apurtxo bat hobetzeko ete da?

Ibai Urien •

Pintorea da, Abadiño-ko Sagasta auzokoa



JUAN BERISTAIN

NEKAZAL TRÉSNAK

Salmenta eta konponketa

